

IRAKASKUNTZA PARTEKATUA: ESTRATEGIAK ETA ESPERIENTZIAK IKASGELETATIK IKASGELETARAKO

Marta Sandoval Mena (Zuz.)



IRAKASKUNTZA PARTEKATUA: ESTRATEGIAK ETA ESPERIENTZIAK IKASGELETATIK IKASGELETARAKO

Zuzendaritza:

Marta Sandoval Mena

Egileak:

Marta Sandoval Mena
Manuel Álvaro Dueñas
Andrea Jardí Ferré
Ana Luisa López Vélez
Cristina Petreñas Caballero
Lucía María Parody García
Haizea Galarraga Arrizabalaga
Juan José Leiva Olivencia
Lucia Gayol Rodriguez
Olaya Matilla Pizarro
Cristina Pinto Díaz
Tamara Benito Ambrona
Eider Hermoso Larzabal

Diseinua eta maketazioa:

Kolaboratzaile grafikoa: Mónica Desiree Sánchez Aranegui

CIP. Biblioteca Universitaria

Irakaskuntza partekatua [Recurso electrónico]: estrategiak eta esperientziak ikasgeletatik ikasgeletarako / zuzendaritza, Marta Sandoval Mena ; egileak, Marta Sandoval Mena ... [et al.]. – Datos. – [Leioa]: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2025]. – 1 recurso en línea: PDF (181p.). – (Unibertsitateko Eskuliburuak = Manuales Universitarios)

Modo de acceso: World Wide Web.

Incluye referencias bibliográficas.

ISBN: 978-84-1319-706-7

1. Enseñanza – Trabajo en equipo. 2. Enseñanza – Métodos activos. 3. Integración escolar. I. Sandoval Mena, Marta, dir.

(0.034)37.091.33

(0.034)37.043

«Inklusioaren aldeko irakaskuntza partekatua: hezkuntza eraldatzeko kulturak, politikak eta jardunbideak» I+G+B proiektua (Erref. PID2022-137000OB-I00).

«Koirakaskuntza ereduak inklusiorako eta irakaskuntza-garapenerako estrategia gisa» transferentzia-proiektua, Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren Fundazioaren Ezagutza Transferitzeko Programaren III. edizioa.



Deloitte.



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren diru-laguntzari esker itzuli ahal izan da gida hau euskarara.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Aipatzeko: Sandoval, M. (Zuz); Álvaro, M.; Jardí, A.; López, A.L.; Petreñas, C.; Parody, L.M.; Galarraga, H.; Leiva, J.J.; Gayol, L.; Matilla, O.; Pinto, C.; Benito, T eta Hermoso-Larzabal, E. (2026). Irakaskuntza partekatua: Esperientziak ikasgeletatik eta ikasgeletarako.

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-1319-706-7.



Argitalpen honen edukiek Aintzatespen-lizentzia —ez komertziala— partekatua (by-nc-sa) dute, helburu ez-komertzialarekin eta beste deribatu batekin. Materiala edozein bitarteko eta formatutan kopia eta birbanatu daiteke, betiere helburu komertzialik ez badu; baita materialetik abiatuta birnahastu, eraldatu eta sortu ere, betiere sorkuntzalanak jatorrizko obraren lizentzia berarekin zabaltzen badira.

AURKIBIDEA

Aurkezpena	7
Sarrera. Zer eskaintzen dugu?	9

LEHENENGO ATALA

EZAGUTZEN ETA ENTZUTEN	15
------------------------	----

1. kapitulua

ZER DA IRAKASKUNTZA PARTEKATUA?	17
1.1 Gaitasunetan oinarritutako ikas-irakaskuntza.	
Lankidetza-irakaskuntzaren kulturaren garapenerako erronka	22
1.2 Gaitasunen garapena jakintza-arloetan	26

2. kapitulua

ZERGATIK EGIN IRAKASKUNTZA PARTEKATUA?	29
2.1 Irakaskuntza partekatua ikasleen emaitza akademikoetan	30
2.2 Irakaskuntza partekatua ikasgelaren kudeaketan	31
2.3 Irakaskuntza partekatua, hezkuntza inklusiboa sustatzeko	33
2.3.1 Ikasgelako laguntzen lege-esparrua	41
2.4 Koirakaskuntza irakaskuntzaren garapen profesionalean	43
2.4.1 Koirakaskuntza irakasle hasiberriak prestatzeko estrategia gisa	48

3. kapitulua

IKASTETXEETAN KOIRAKASKUNTZA GAUZATZEKO BALDINTZAK	53
3.1 Zer egin dezake zuzendaritza-taldeak koirakaskuntza sustatzeko?	54
3.2 Ordutegien prestaketa. Benetako erronka	58
3.3 Irakaskuntza partekaturako espazio egokiak. Ez bakarrik ikasgela	63

3.4	Pertsonen arteko faktoreak. Irakasleen arteko harreman onaren garrantzia	65
3.5	Zeintzuk dira irakaskuntza partekatua jardunbidean aurki ditzakegun oztopoak?	72

4. kapitula

TEORIATIK PRAKTIKARA. NOLA ANTOLATU KOIRAKASKUNTZA?		75
4.1	Irakaskuntza partekatua planifikatzea	76
4.2	Irakaskuntza partekatua ikasgelan antolatzeko egiturak	80
4.2.1	Ikasgelako talde osoarekin	80
	a) Irakasle batek irakasten du eta besteak behatu egiten du	81
	b) Irakasle batek irakasten du eta besteak lagundu egiten du	83
	c) Talde-irakaskuntza	85
4.2.2	Ikasleak taldetan banatuta	88
	a) Eremuen edo/eta zirkulazio librearen arabera irakaskuntza	89
	b) Irakaskuntza paraleloa	91
	c) Irakaskuntza alternatiboa	93
4.3	Irakaskuntza partekatua ikastetxeetako jardunbidean	95
4.3.1	Irakaskuntza partekatua irakasle laguntzaileekin	97
4.3.2	Irakaskuntza partekatua irakasle ez diren langileekin	103
4.3.3	Behaketa bidezko irakaskuntza partekatua	109
4.3.4	Arlo edo gai bera irakasten duten irakasleak	111
4.3.5	Irakaskuntza partekatua hezkuntzako diseinu intersektionaletan	113
	4.3.5.1 Eremukako irakaskuntzaren antolaketa	113
	4.3.5.2 Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI)	115
4.3.6	Irakaskuntza partekatuko esperientziak Haur Hezkuntzan	121
4.4	Koirakaskuntza ebaluatzen	123

BIGARREN ATALA

PRAKTIKATUZ ETA PARTEKATUZ

131

5. kapitulua

TEORIATIK PRAKTIKARA NOLA ANTOLATU KOIRAKASKUNTZA?

LANERAKO MATERIALAK 145

- 1 Irakaskuntza partekaturako irakaskuntza-itxaropenak esploratzen 146
- 2 Komunikazio eraginkorraren sareta 149
- 3 Gatazken ebazpeneko sareta 150
- 4 Thomas-Kilman galdetegia. Gatazkei aurre egiteko bost modalitate 151
- 5 Ikasgela arrunteko irakaskuntza partekatuko saioen planifikazioa 157
- 6 Ikasgelako behaketaren erregistroa 159
- 7 Irakaskuntza partekatuko esperientziaren ebaluazioa 161
- 8 Ikasleen eta irakasleen ebaluaziorako galdetegia 166


PARTEKATZEN 168

Erreferentzia bibliografikoak 170

Irudien aurkibidea 178

Taulen aurkibidea 179

Bideoen aurkibidea 180




AURKEZPENA

Madrilgo Unibertsitate Autonomoak (UAM) koordinatutako talde batek hartu du parte «*Irakaskuntza partekatua: estrategiak eta esperientziak ikasgeletatik ikasgeletarako*» izeneko gida hau prestatzen. Unibertsitate horretako eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko, Malagako Unibertsitateko, Euskal Herriko Unibertsitateko eta Asturiaseko Printzerriko zenbait irakaslek osatzen dute taldea. Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren Fundazioaren Ezagutzaren Transferentzia Sustatzeko Programaren III. edizioaren barruan dagoen «*Koirakaskuntza-ereduak inklusiorako eta irakaskuntza-garapenerako estrategia gisa*» proiektuaren emaitza da, eta bere eskuzabaltasunarengatik eta laguntzarengatik gure esker ona me-rezi duen Deloitte Advisory-k kofinantzatu du. Gainera, *Inklusioaren aldeko irakaskuntza: kulturak, politikak eta hezkuntza-eraldaketarako jardunbideak* izeneko I+G+B proiektuaren (MCIN/AEI PID2022-137000OB-I00) jarduera estrategikoen barruan dago. Marta Sandoval UAMeko irakaslea da proiektuaren koordinatzailea.

Gida honen egileok zinez eskertu nahi dugu euren esperientziak, jakinduria eta gogoetak gurekin partekatu dituzten ia ehun irakasle eta zuzendaritza-taldetako kideren lankidetzaren desinteresatua eta baldintzarik gabeko laguntza. Konpromiso horrek bokazioa eta ezagutza hezkuntza eredu sozialago eta inklusiboagoetarantz aldatzeko lokomotorrak direla erakusten du. Haien ekarpenik gabe, irakurleek oso bestelako testua izango lukete esku artean. Esker oneko zorra hartu dugu, hitzez hitzezko esanahian, ateak ireki dizkiguten eta hain eskuzabal hartu gaituzten ikastetxeekin. Ikastetxe horietako batzuek, gainera, euren jardunbideak ikus-entzunezkoetan grabatu ahal izatea erraztu digute, eta, horri esker, ikasgelako egoera errealak grafikoki dokumentatu ahal izan ditugu, gida honetako bideoak sortuz.

Armentia Ikastola (Gasteiz, Araba)
Luis Buñuel HLHI (Alcobendas, Madril)
Manuel Altolaguirre HLHI (Malaga, Malaga)
Miguel de Cervantes HLHI (Malaga, Malaga)
Nuestra Señora de Navahonda HLHI (Robledo de Chavela, Madril)
Padre Piquer Prestakuntza-zentroa (Madril, Madril)
Ponce de Leon Zentroa (Madril, Madril)
Claver-Jesuitak ikastetxea (Raimat, Lleida)
Clara Campoamor HLHI (Riaño, Asturias)
Santa Barbara HLHI (Lugones, Asturias)
La Llacuna del Poblenou Eskola (Bartzelona)
Albalat BHI (Navalmoral de la Mata, Caceres)
Bovalar BHI (Castelló de la Plana, Castelló)
Gandhi BHI (Orcera, Jaen)
José Saramago BHI (Majadahonda, Madril)
Juan de Villanueva BHI (Madril)
Julio Verne BHI (Leganes, Madril)
Puerta Bonita BHI (Madril, Madril)
Sarriguren BHI (Sarriguren, Nafarroa)
Uribe-Kosta BHI (Plentzia, Bizkaia)
Manel de Montsuar BHI (Lleida, Lleida)



SARRERA

Zer eskaintzen dugu?

Gida hau irakaskuntza partekatua esperimentatzeko gonbidapena da, abiapuntua edozein dela ere. Gure helburua koirakaskuntzaren justifikazio teorikoan eta metodologikoan aurrera egitea, ezagutu ditugun jardunbide inspiratzaileak ezagutaraztea eta esperientziak trukatzeko laguntzea da.

Lehenik eta behin, balioa eman nahi genioke hainbeste ikastetxeren eta hezkuntza-talderen eguneroko lanari, irakaslanak hobetzeko egindako ahaleginari eta gizartea eraldatzeko tresna gisa hezkuntza inklusiboarekin hartutako konpromisoari.

Irakaskuntza partekatua edo koirakaskuntza, bere modalitate guztietan, eguneroko zeregin didaktikoei eraginkortasunez heltzeko, eta, gainera, eta, batez ere, egiturazko zenbait erronkari aurre egiteko aukera ematen duen ikuspegi metodologiko indartsua da, horien konponbidean eskola kritikoagorantz, sozialagorantz eta inklusiboagorantz aurrera egiteko.

Irakaskuntza partekatuak bere eraginkortasuna erakutsi du irakaskuntzak arlo intersektionalen arabera antolatzeko, metodologia kritikoak eta lankidetzakoak garatzeko, justizia sozialarekin konprometitutako eskola eraikitzeke edo irakaskuntza elebidunak planteatzen dituen zailtasunei heltzeko. Hala ere, irakaskuntza partekatuaren txertaketan aurrerapen handiena hezkuntza inklusioan egin da, erreferentziazko gelen barruan aniztasunari erantzuteko aldaketa eraginkorrak eskaintzen baitira, ikasleak bereizten dituzten eredu tradizionalak saihestuz. Irakaskuntzako profesional askok bezala, ez dugu hezkuntza inklusiorik gabe ulertzen. Ikuspegi horren bidez, botere-egitura nagusi eta baztertzaleei aurre egiten diegu. Horregatik, inklusioa lege-dokumentuetan txertatutako hezkuntza-erretorika baino askoz gehiago da. Pertsonen oinarritzko eskubidea da, eskolaren beharrezko eraldaketa ulertzeko modua.

Esku artean dugun dokumentuak ez du ohiko gida izatea bilatzen, baina ez dugu termino egokiagorik aurkitu nahi duguna azaltzeko. Jarraibideen eskuliburu itxia izatetik urrun, Espainia osoko ikastetxeetan irakasleek gauzatzen dituzten ikasgelako esperientzia errealez elikatzen den lan tresna eskaintzen dugu.

Egia da irakurleek testuinguruaren esparru teorikoa eta proposamenen sistematizazioa aurkituko dutela, baina esanahia ematen dion masa kritikoa hezkuntza-ikerketaren ekarpenekin eta irakaskuntza partekatuko jardunbideekin berritzen ari diren hainbat eta hainbat irakasle metatutako esperientziaren zordun da. Askotarikoak izan arren askotan gutxi ezagutzen den eta are aintzatespen txikiagoa duen berritzeko bokazioari erantzuten dioten planteamenduetatik. Illo horretan, ez da jarraian irakurtzeko testua, irakaslanari buruzko gure hausnarketari laguntzeko testua baizik. Paulo Freirek azaldu zigun bezala, hausnarketa teorikorik gabeko jardunbideak ekarpen gutxi edo batere egiten ez duten boluntarismoak dakartza. Hori dela eta, gidaren ardatza osatzen duten esperientziekin batera, testuinguruan jartzeko beharrezkoak diren zenbait sintesi teoriko daude.

Material hau proposamen didaktikoak diseinatzeko tresna baliagarria izatea espero dugun arren, planteamendu utilitaristetatik aldentzen saiatu gara. Ez ditugu irakasleak hezkuntza-sistemaren engranajearen «giza baliabidetzat» hartzen, uko egin gabe irakasle-taldeen eta, areago, ikastetxeei esanahia ematen dien hezkuntza-komunitate osoak, erakutsitako potentziala optimizatzeko helburu komunari. Irakasleak dira hezkuntza-sistema egituratzen duen ardatza, eta, beraz, edozein berrikuntza-prozesuren eragile nagusiak eta ezinbestekoak.

Askotarikoak eta gero eta ugariagoak diren ikerketek egiaztatu dutenez, irakaskuntza partekatuko jardunbideak egiten dituztenean eta euren esperientzia partekatzeko aukera dutenean irakasleak lagunduta sentitzen dira eta ikasgelako egoerak kudeatzeko moduari buruzko zalantzak adieraz ditzakete. Besteen laguntzek jardunbide bera aberasten duten hausnarketak, ideiak eta proposamenak ekartzen dituzte. Lanbide honek ekarpen kolektiboa eta kolaboratiboa eskatzen du.

Ikasgela barruan irakasleak taldea kudeatzen duen jardun profesionalen espazio pribatuan jardunbide isolatuak interferentziarik gabe gainditzeko funtsezko aldaketa dakar, eta horrek nolabaiteko antsietatea eragin dezake. Indibidualismoaren, balkanizazioaren edo kolegialtasun artifizialaren kulturek lankidetzaren jardunbideen aurkako presio handia egiten dute (Hargreaves, 1996). «Gure» ikasgelako espazioa galderak, zalantzak edo iradokizunak planteatzen dizkiguten eta eguneroko jardunbidea behatzen eta, agian, ebaluatzen duten lankideekin partekatzeak, berez ematen ez den harreman eta komunikazio jarreraren eta estrategien aldaketa eskatzen du, eta irakasleen arteko aholkularitza eta hausnarketarako laguntza eta esku-hartze jarraituak behar dira. Kontua, «ni nire ikasgelan» izeneko kultura horretan zalantzak eta arazoak, eta baita soluzio eta jardunbide arrakastatsuak partekatzea eragozten duten eta oso errotuta dauden jardunbideak aldatzea da.

Hala ere, irakaskuntzako lankidetzaren ikastetxeetan berrikuntza- eta hobekuntza-prozesuak bultzatzeko funtsezko baldintza bada ere, elkarlan guztiak ez du funtsezko hobekuntzarik sustatzen irakaskuntzan, edo ez du irakasleen berrikuntza-gaitasuna garatzen.

Gida honen helburua kultura profesionala behar bezala aldatzen laguntzea da, esperientziak trukatzeko eta proposamenak elkarlanean egiteko eta hausnartzeko espazioak sortuz. Gida idazteko, etengabeko harreman dialektikoan kontuan hartu behar diren bi aditu-iturri erabili dira: azken urteetako literatura zientifikoa eta proiektu honetan lagundu duten ikastetxeetako irakasleak eta zuzendaritza taldeak.

ZER ESKAINTZEN DU GIDA HONEK?

Irakaskuntza partekatuaren antolaketa didaktikoa oso dinamikoa eta askotarikoa izaten dela egiaztatu ahal izan dugu. Ikasgeletan malgutasunez konbinatzen eta egokitzen dira literatura akademikoak identifikatutako modalitateak. Ezagutu ditugun esperientzia askotan, irakaskuntza partekatuko proiektuen jatorria irakasleek hezkuntza-egoera zaharrak eta berriak konpontzeko estrategia didaktiko eraginkorragoak bilatzean datza. Aitortu behar da proposamen berritzaileak artikulatzeko ahalegina handia izan dela, aldezturik irakaskuntza zatituan prestakuntzarik jaso gabe eta egiten ari denari izenik jarri gabe.

Argitalpen honekin, mundu anglosaxoian ohikoak diren arren, Espainiako testuingururako irakaskuntza partekatuko jardunbide egokiak bateratuko dituen dokumentu bat izateko beharrari erantzuten zaio.

Gida tresna malgua da, bloketan antolatua, errazago irakurtzeko. Lehengoan, EZAGUTUZ ETA ENTZUNEZ, abiapuntuko irakaskuntzaren oinarri teorikoaren funtsezko gaiak jorratzen eta ikastetxeetan gauzatutako jardunbide egokiak erakusten dira. Bigarrenean, PRAKTIKATUZ ETA PARTEKATUZ, zatikako irakaskuntza proiektuak abian jartzea bideratzeko balizko ibilbidea proposatzen da, uste denez irakasle taldeek euren hezkuntza errealitatearen arabera hartuko dituztelako erabakiak.

Zenbait material lagungarri sartu dira, batez ere lanekoak, eta, hala, egokitze, hobetzeko edo erantzuteko modukoak. Bibliografia, berriz, erraz eskuratzeko modukoa da, zehatza izateko asmorik gabea, eta orrialde hauetan lantzen diren gai teorikoetan eta metodologikoetan sakontzeko aukera ematen du.

Azkenik, gidak, irakaskuntza partekatuko esperientziak sendotzera ez ezik, horiek hedatzera ere gonbidatzen gaitu. Plataforma kolaboratiboa ireki dugu, taula gisa, zuzendaritza taldeak eta irakasleak animatzeko eu-



ren esperientziak eta materialak hausnarketa partekatutik zabaldu ditza-
ten, jardunbide profesionala hobetzeko eta hezkuntza eredu inklusiboeta-
rantz aurrera egiteko tresna gisa.



TAULA DIGITALA

IRAKASKUNTZA PARTEKATUKO SAREAK ERAKITZEN

LEHENENGO ATALA



**EZAGUTZEN ETA
ENTZUTEN**

ZER DA IRAKASKUNTZA PARTEKATUA?

Irakaskuntza partekatua edo koirakaskuntza irakaskuntza koordinatua da, eta horretan bi hezitzailek edo gehiagok ikasgela arruntean aldi berean egiten dute lan ikasle talde heterogeneoarekin.

Irakaskuntzan lankidetzan aritzeko modu asko daude; izan ere, badirudi hori dela gure ikastetxeek aurrean dituzten erronkak konpontzeko mantra. Irakaskuntzako lankidetzak hartzen dituen forma ugariak informale-netatik egituraketa maila handia duten beste batzuetara doaz. Hori da irakaskuntza partekatuaren edo koirakaskuntzaren kasua.

Ikastetxeetan gauzatzen ari diren irakaskuntza-berrikuntzako proiektuek eta horri buruz egin diren ikerketek agerian utzi dituzte irakaskuntza partekatuaren onurak, ikasgelan inklusioa eta berrikuntza sustatzeko ez ezik, ikaskuntzak hobetzeko eta hezkuntza-komunitate osoan jarrera inklusiboak eta lankidetzakoak sustatzeko ere eraginkorra den irakaskuntza-eredu gisa.



Ikasle batek egindako bere irakaslekideen marrazkia.

Iturria: Clara Campoamor LHI, Asturias

Friendek eta Cookek (2004) bezala, ikasle talde bati ikasgela edo lan-espazio berean irakasteko ardura modu kolaboratiboan hartzen duten bi hezitzaileen edo gehiagoren jardueratzat hartzen dugu koirakaskuntza edo irakaskuntza partekatua. Irakasleek baliabideak eta erantzukizunak partekatuko dituzte, baina litekeena da bakoitzaren parte-hartze maila bat edo beste izatea, unearen eta egin beharreko jardueraren arabera. Gida honetan, bata zein bestea erabiltzen diren koirakaskuntza edo irakaskuntza partekatua terminoen barruan planifikatutako baterako irakaskuntzako jardunbide guztiak sartzen dira, hura egitean ezagutu ditugun esperientzietan askotariko terminoekin izendatzen diren arren (ikus 1. irudia).

Hala ere, beste testuinguru batzuetan ez bezala, Espainian ia ez dago zer egin den aztertzeko ikerketarik edo argitalpenik eta, beraz, zuzendaritza-eta irakasle-taldeei hausnarketarako eta euren proiektuak diseinatzeko tresna gisa balio dienik. Irakaskuntza partekatua estrategia didaktiko gisa hedatzeak eta finkatzeak irakaskuntza-metodologietan erabateko eragina izatea eskatzen du, eta irakasleen prestakuntza eta hezkuntza-administrazioen konpromisoa eskatzen duen irakaskuntzaren garapen profesionale-rako erronka da.

1. irudia: Espainiako irakaskuntza partekatuaren izendapenak



Iturria: Egileek egina.



Eremuen araberako ikasgela. Iturria: Bovalar BHI (Castelló)

Koirakaskuntzak zentzua du, hau nahi izanez gero:

- Inklusioa hobetzea (ikasle guztien presentzia, parte-hartzea eta aurrerapena)
- Ikasgela barruko hezkuntza-laguntza optimizatzea.
- Ikastetxearen lankidetzakultura hobetzea.
- Irakasleek euren ikasgelako gestioan gogobetetze handiagoa izaten laguntzea.
- Ikasleen arteko elkarrekintza sustatzea.
- Metodologia aktiboak aplikatzea.
- Diziplinarteko proposamenak inplementatzea.

Ez dago koirakaskuntzarik kasu hauetan:

- Irakasleek irakasgai bat edo batzuk txandaka ematen dituzte.
- Irakasle batek irakasten du, besteak eskolak prestatzen dituen edo ikasleen lana kalifikatzen duen bitartean.
- Irakasle batek ikasgaia ematen du, bestea eserita edo zutik dagoen eta betebeharrak eta helburu argirik gabe behatzen duen bitartean.
- Irakasle batek hartzen ditu erabakiak, eta besteak agintzen zaiona gauzatzen du.


Irakaskuntza partekatua ez da, berez, helburu bat, eta ez du zentzurik modu mekanikoan aplikatzeak. Hurrengo ataletan azalduko den bezala, koirakaskuntzak irakasleen lan koordinatua ez ezik, lan partekatua ere eskatzen du. Lan horrek irakasteko eta ikasteko prozesuen alderdi guztiak barne hartzen ditu, material didaktikoak programatzetik eta prestatzetik hasi, ikasgelan jarduerak egitetik eta ikasleei arreta ematek igaro, eta horien etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egiteraino.

Gogora dezagun irakaskuntza partekatua, berrikuntza pedagogikoko edozein modu bezala, hezitzaileek ikastetxeetan egunero planteatzen zaien erronkei erantzuteko duten beharretik abiatzen dela, kasu honetan irakasleek eta zuzendaritza taldeek horrela hautematen dutelako. Irakaskuntza partekatuak antolaketan dituen erronken adibide gisa, ikasleek eskatzen dituzten laguntzak euren erreferentziako ikasgelan emateko beharra ikusiko dugu. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko bateko zuzendariak azaldu digu, jardunbidearen ikuspegitik, zer izan zen bere ikastetxearentzat ordura arteko hezkuntza arloko laguntzak emateko modua haustea. Koirakaskuntzaren eraginkortasuna nabarmentzen du, ez bakarrik arlo akademikoan, baita antolaketakoan ere. Ikus dezakegunez,

ikasle kopuru txiki bati erantzuteko hartutako neurri batek ikasle guztiei eta irakasle-taldeari egiten die mesede:

«Betidanik ikasle jakin batzuk ikasgelatik ateratzen genituen. Baina gero ikusi genuen giza baliabidea ikasgela barruan dagoenean askoz onura gehiago ateratzen dituztela, lehenik, ikasle guztiek eta, bigarrenik, irakasle guztiek. Azkenean, efizientzia kontua zen. Ez genuen behar zuten ikasle guztiak ateratzeko lekurik, ezta horretarako langilerik ere, eta, horrela, askoz ikasle gehiagori ematen zaie arreta, eta irakasleak oso babestuta sentitzen dira»

**(Madrilgo Nuestra Sra. de Navahonda
HLHIko Zuzendaria).**



Koirakaskuntza ikasgela Bigarren Hezkuntzan.

Iturria: Julio Verne BHI, Madril

Irakaskuntza partekatua egiteko zenbait baldintza bete behar dira. Tes-tuinguru instituzional eta soziohezitzaile jakin bat eskatzen du. Hori guztia hurrengo epigrafeetan ikusiko dugu.

1.1

**GAITASUNETAN OINARRITUTAKO
IKAS-IRAKASKUNTZA. IRAKASKUNTZAKO
LANKIDETZAREN KULTURA GARATZEKO ERRONKA**

Tradizio pedagogiko indibidualista eta zatikatuak ez du irakaskuntzako esperientzia gehiegi garatzea ahalbidetu. Oro har, zatiketarako joera da nagusi, eta horrek indibidualismo profesionalera eta isolamendura jotzen duten kulturak sortzen ditu. Bestalde, ikaskuntzen hobekuntza eta irakasleen arteko lankidetzaren potentzialaren aprobetxamendua sustatzen ez duten katedra-autonomia eta askatasun erretorikoak eta gaizki ulertuak defendatzeari lotutako kulturak dira. Beraz, ikastetxeetan lankidetzakulturretarantz aurrera egitea ezinbesteko helburua da ikasgelan eta ikastetxeetan aldaketak, berrikuntzak eta hobekuntzak planteatzeko.

Europako Batzordea, duela ia hogeitaz urte, berrikuntzarako, produktibitateko eta lehiakortasunerako funtsezkotzat jotzen dituen funtsezko gaitasunak definitzen hasi zen bere esparru ekonomiko eta politikoan, hasierako esparru geografiko hori gainditu den arren, hezkuntza-politiken paradigma doktrinal gisa hedatzeko. Europar Batasunaren orientabideak, XXI. mendearen hasieratik, hezkuntza-sistemetan zortzi gaitasun gako deitu zirenak sartzeko proposamenak markatzen ditu. Alde teorikotik eta enpirikotik, eskumenen kontzeptua eztabaiden mende egon da, eta eboluzionatuz joan da. Gaitasuna, lan merkatuaren etengabeko bilakaeran, ezagutzaren eraikuntzan eta herritar aktiboen erronketan beharrei eta eskaerei modu eraginkorrean, zehaztasunez eta moldagarritasunez erantzutea ahalbidetzen duen ezagutzaren, trebetasunen, ulermenaren, balioen eta jarreraren konbinazio konplexu gisa uler genezake.

LOMLOEk Espainiako hezkuntza-sistemaren irteera-profilaren helburu gisa egokitzen ditu gaitasun horiek. Bestalde, Espainiako Estatuak Garaipen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzeko 2030 Agendarekin bat egiteak zeregin erabakigarria izan du hezkuntza sistemaren eskakizunetan, ez

bakarrik hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzearen eta guztiontzako bizitza osoan ikasteko aukerak sustatzearen alde egiten duen 4. GJHan jasotakoarengatik.

LOMLOEn jasotako funtsezko konpetentziak

- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.
- Konpetentzia eleaniztuna.
- Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniariartzarako konpetentzia.
- Konpetentzia digitala.
- Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.
- Herritartasunerako konpetentzia.
- Ekintzailtza-konpetentzia.
- Kontzientzia eta adierazpen kulturalerako gaitasuna.



EDUCAGOB WEBGUNEA

Azken batean, ezagutza, abileziak eta trebetasunak, balioak eta jarrerak sustatzen dira, herritarrek informazio kontrastatu eta egiazkoan oinarritutako erabakia har dezaten, eta ekintza arduratsuak egin ditzaten ingurumen jasagarritasunaren, bideragarritasun ekonomikoaren eta justizia sozialean oinarritutako gizartearen alde. Horretarako, hezkuntza-sistema malguagoa, irekiagoa eta kosmopolitagoa behar da, eta horrek esan nahi du gure gizartean dagoen aniztasuna ikasleen garapen integralaren errealitatearen berezko osagaitzat hartu behar dela. Lege-esparru horrek agerian uzten du prestakuntza integral batek berekin dakarrela gaitasunen garapena ikaskuntzaren erdigunean jartzea, kontuan hartuta beharrezkoa dela gai desberdinen zeharkako lan koordinatua egitea. Laburbilduz, irakaskuntzako lankidetzak funtsezko faktorea da hezkuntzako helburuak lortzeko.



Irakaskuntza partekatua eta gaitasun pertsonala eta soziala eta ikasten ikastekoa eskuratzea

Irakaskuntza partekatuak LOMLOEn jasotako Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa eskuratzen laguntzen du. Bizikidetzaren modu programatuan, sistematikoan eta zeharkakoan ikasteko xede gisa lantzeko aukera ematen du.

Irakaskuntza partekatuak berdinen arteko elkarrekintzarako metodologia aktiboak eta dinamika positiboak inplementatzen laguntzen du, eta horiek, aldi berean, ikasgelako egoera gatazkatsuek murrizten dituzte.

Irakaskuntza partekatuak emozioak kudeatzeko eta egoera gatazkatsuei modu proaktiboan aurrea hartzeko programak diseinatzen dituzte.

Irakaskuntza partekatuak ikasgelako giroa eta bizikidetzaren hobetzea errazten ditu, edozein egoerak berehalako tratamendu egokia jasotzea errazten baitu.

Irakaskuntza partekatuak ikasgelan jokabide positiboak finkatzeko aukera ematen du, irakasleen arreta handiagoa behar den eskola-eguneko uneetan.

Irakaskuntza partekatuak ikasteko metodoak eta estrategiak dibertsifikatzea errazten.

1.2

GAITASUNEN GARAPENA JAKINTZA-ARLOETAN

Beraz, lankidetzaren kultura profesionalerantz aurrera egitea ezinbesteko helburua da hezkuntzaren potentziala eremuka aprobetxatzeko, hori garatzen ari diren ikastetxeetako hezkuntza-taldeek eta erakundeek defendatzen duten bezala. Talde horien meritua bere balioan aitortu behar da, euren hezkuntza-proiektuak hutsetik diseinatu behar izan baitituzte, hezkuntza-administrazioen laguntza eraginkor gutxirekin.

LOEk (2006) egin zuen bezala, jakintza-eremuen bidez LOMLOEk curriculum-sustapenaren aldeko apustua egiten du. Hala ere, curriculum-eremuaren kontzeptua Espainiako legerian jasota dago LOGSEtik (1990), zehazki dibertsifikazio-programetan curriculum-antolamendua eremuka jasotzen duen 1007/1991 Errege Dekretuan. Ildo horretan, irakaskuntza partekatua bereziki baliagarria da estrategia didaktikoak diseinatzeko, esperientzia gutxi, bat ere ez esatearren, dugun eta ikerketako erreferentzia gutxi aurkitzen ditugun hezkuntzako erronkari heltzeko (Ubeda, 2023).

Bestalde, esparrukako ikasketa indibidualismoa eta ezagutzaren zatiketa lehenesten dituen kultura profesionalaren aurka doa, eta, askotan, katedra askatasuna ulertzeko modu gaizto baten babespean dago, lehen adierazi dugun bezala, izan ere, kultura hori oztopoa da ikaskuntzak hobetzeko eta irakasleen arteko lankidetzaren potentziala aprobetxatzeko.

Orain arte egin den hezkuntza-erreforma bakoitzean bezala, prestakuntza eta finantzaketa hura ezartzeko eta garatzeko ardatz kritikoan daude. Bi faktore horiek funtsezkoak dira irakaskuntza partekatua arloka antolatu ahal izateko. Ildo horretan, Autonomia Erkidegoen arauzko garapenak zehaztuko du horien benetako bideragarritasuna, adierazpen erretorikoe-tatik harago. Valentziako Erkidegoa aitzindaria izan zen hezkuntza esparruen arauzko erregulazioan, eta, dagokion 107/2022 araudiaren bidez, DBHko lehen mailan eremukako irakaskuntza ezarri zen nahitaez, eta bi-

garrenean eta hirugarrenean horren gomendagarritasuna. Hala ere, Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak geroago emandako epai batek (312/2023) Dekretuaren zati bat baliogabetu zuen, eta kasu guztietan ikastetxeetarako hautazkotasuna ezarri zuen.

Beste bi erkidegotan, Madrilen eta Asturiasen, aukera zabaldu egin da, baina erabakia klaustroen esku utzi da. Horrek potentzial gatazkatsua dakar; izan ere, hainbat arrazoirengatik, irakasleen jarrera ez da ahobatezkoa. Madrilgo Erkidegoak DBHko lehen eta bigarren mailetarako aurreikusten du, ikastetxeen autonomiaren esparruan. Asturiasko Printzerrian ere arloka egituratu ditzakete edukiak, bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHko lehen bi mailetan. Asturiasen kasuan, eremu bakoitzeko irakaskuntza irakasle bakar bati esleituko zaio, eta zaila egiten zaigu DBHrako egitura-tzea. Hala ere, zehaztu da aniztasunari arreta emateko irakasle laguntzailak esku hartu ahal izango dutela, gainerako irakasgaietan bezala, baina horrek ez dakar berrikuntza handirik.

**VALENTZIAKO GENERALITATEKO EGUNKARI
OFIZIALAREN DEKRETUA**

Valentziako Erkidegoa: 107/2022 Dekretua, abuztuaren 5koa, Consell-arena, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren antolamendua eta curriculuma ezartzen dituen.

**MADRILGO ERKIDEGOKO ALDIZKARI OFIZIALA**

Madrilgo Erkidegoa: 457/2023 Agindua, otsailaren 17koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxillergoa irakasten duten ikastetxeen autonomia gauzatzeko prozedura zehazten duena.

**ASTURIASKO PRINTZERRIAREN BULETINA**

Asturiasko Printzerria: 2023ko maiatzaren 11ko Ebazpena, Hezkuntza Sailarena, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen antolamendu akademikoaren eta ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioaren alderdiak arautzen dituen.

ZERGATIK EGIN IRAKASKUNTZA PARTEKATUA?

Ikasgelan bi irakaslek lan egiteak ikasleentzat arreta bikoitza esan nahi du, ez lan erdia irakasleentzat.

(Bovalar BHiko zuzendaria, Castelló)

Azaldu den bezala, irakaskuntza partekatuak estrategia didaktikoen garapen espezifikoak eskatzen duten zenbait hezkuntza-abantaila ematen ditu. Bereziki, hezkuntza-ingurune inklusiboak bultzatzen ditu, ikasgelako giroa hobetzen du eta ikasleen parte-hartzea sustatzen du. Hezkuntza-komunitatearen konpromisoa eskatzen du, ez bakarrik zuzendaritza- eta irakasle-taldeena. Ikasleek eta familiek ulertu behar dute, halaber, hezkuntza hobetzeko eta ikaskuntzak optimizatzeko proposamena dela, eta beharrezkoa dela horien antolamenduan. Ikaskuntzaren emaitzei dagokienez, koirakaskuntza egin duten ia irakasle guztiek nabarmendu dituzte horren alde onak, ikastetxeen egiturazko arazoengatik abantailak arriskuan daudela aho batez adierazten duten arren.



KOIRAKASKUNTZAREN ONURAK (Bideoa)

2.1

IRAKASKUNTZA PARTEKATUA IKASLEEN
EMAITZA AKADEMIKOETAN

Aurreko hamarkadako literatura zientifikoak ez du irakaskuntza partekatuak ikasle guztien errendimendu akademikoan duen eraginari buruzko emaitza erabakigarriak ematen, baina egiaztatu da Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) dituzten ikasleek hobekuntzak izan dituztela. Horrek esan nahi al du koirakaskuntzak ez diela balio erantsirik ematen beste metodologia batzuei? Erantzuna argia da. Jakina baietz. Lehenik eta behin, zalantzan jar liteke zer ulertzen den emaitza akademiko gisa, eta zilegi da galdetzea begirada erredukzionista samarrak ez ote diren. Azterlan gehienek errendimendua denbora-tarte laburretan eta curriculum-eduki espezifikoari dagokienez neurtzen dute, eta ez dugu erabilitako metodologiaren aldakortasun handiari eta gizarte- eta hezkuntza-testuei buruzko laburpenik.

Hala ere, argigarriak dira King-Sears *et al.*-ek (2021) eta Helling *et al.*-ek (2023) argitaratutako bi metanalisiren ondorioak. Irakaskuntza partekatuak ikasleek errendimendu akademikoan dituen ondorioak aztertzen dituzte, bai Hezkuntza Premia Bereziak izatearen etiketa jaso dutenentzat, bai halakotzat identifikatzen ez direnentzat, eta ondorioztatzen dute HPBak dituzten ikasleek ikaskuntzek hobera egin dezaketela irakaskuntza partekatua dagoenean.

King-Sears *et al.*-en (2021) azterlanak erakusten du koirakaskuntzaren emaitzak hobeak direla hizkuntzalaritzako arloetan. Helling *et al.*-en azterlanean (2023) STEM [Science, Technology, Engineering and Mathematics] arloetan emaitza hobeak ikusten dira giza zientzietan baino. Azpitaldeen azterketen arabera, ondorioak desberdinak ziren eskola-mailaren arabera, eta bigarren hezkuntzako ikasleak izan ziren irakaskuntza partekatuko esperientzietatik onura gehien ateratzenak. Azterlan horiek agerian uzten dute ikerketa gehiago behar dugula beste egoera eta aldagai batzuk aztertzeko.

Ikastetxeetara egin ditugun bisitetan egiaztatu ahal izan dugunez, irakaskuntza partekatuan esperientzia duten irakasleek ez dute zalantzarik ikasleen ikaskuntzak eta jarrerak hobetu direla esatean. Ikasleen hobekuntzari dagokionez horietako batek azpimarratu du bere ikastetxean «konektibitate kurrikular eta didaktiko handiagoa ikusten dutela, batez ere DBHn». Zehazki, ikaskuntzak diziplinar-tean egiten direnean, ikasleen emaitzak, diskurtsoen lanketa, adimen-gaitasuna eta ikaskuntzak inguru-nearekin eta, are gehiago, mundu profesionalarekin, erlazionatzeko gaitasuna hobetzen direla hautematen du. Irakasleek azpimarratzen dute koirakaskuntzak ikaskuntza esanguratsua sustatzeaz gain, hezkuntza-bazterketarekin lotutako beste alderdi batzuk hobetzen dituela, hala nola absentismoa, eskolako porrota edo ikasgelako giroa. Hala ere, iritzi horiek enpirikoki berretsi beharko lirateke.

2.2

IRAKASKUNTZA PARTEKATUA IKASGELAREN KUDEAKETAN

«Koirakaskuntza dagoenean, ez dira diziplinen parteak jartzen»

(Gandhi BHIko ikasketa-burua, Jaen)

Irakaskuntza partekatuak irakasleen eta ikasleen arteko harremanak errazten ditu, eta, beraz, ikasleen errendimendu akademikoa eta portae-ra hobetzen ditu, batez ere irakasleek ikasleak pertsona autonomo gisa hautematen badituzte, eta ez kolektibo bateko zenbaki gisa (Backman *et al.*, 2012). Ikasleak banaka behatzeak haien ikaskuntza beharrak eta pertsonen arteko harremanak ulertzea ahalbidetzen du. Ikasgelaren kudeaketa partekatuak bizikidetza arazoak modu eraginkorragoan errazten eta konpontzen ditu, eta irakaslekideei laguntza handiagoa ematen die. Irakaskuntza partekatuan esperientzia duten irakasle eta profesional batzuek ikusi dute absentismoa eta jokabide disruptiboen ondoriozko kargu

hartze kopurua murriztu egin direla. Bestalde, alderdi emozionalak hobeto lantzen direla adierazi dute. Jakina, ikasgelan irakasleak egoteak areagotu egiten du berehalako esku-hartzea eskatzen duten egoera jakin batzuen aurreko erantzuna. Irakasle batek era grafikoan azaldu duenez, «lau begik bik baino gehiago ikusten dute» (José Saramago BHI, Madril).

Irakaslekideen arteko harremanak aurrera egiten duen heinean, estrategiak hobetu egiten dira, bai irakaskuntzarako, bai ikasgela kudeatzeko. Ikastetxe bateko zuzendariak azaldu du nola artikulatu dituzten irakaslekideen eta ikasleen arteko kode batzuk ikasgelaren eguneroko funtzionamendua hobetzeko:



«Bai, ikasgelaren kudeaketari dagokionez, ikastetxe mailan zeinu kode batzuk ditugu beti [...] Eskola osoan ezarrita dagoen isiltasunaren kodea. Gazteek berehala erantzuten diote zeinu horri. Edozein irakaslek zeinu hori, ahoa estali eta belarriak ireki, egiten duela ikusten dutenean, haiek erantzun egiten dute. Hori edozein irakaslek erabiltzen du, ikasgelan, korridoreetan. [Baita ere] Ikasgelan agertzen diren egoeren araberako esku-hartze zuzenak. [...] Daukagun kontsigna da egoeratik gertuen dagoenak esku hartzen duela. Hau da, lehenengo ikusi eta detektatzen duenak esku hartzen du. Gero, automatikoki lankidearen laguntza [jasotzen du], noski.»

(Madrilgo Luis Buñuel HLHIko zuzendaria)

2.3

IRAKASKUNTZA PARTEKATUA, HEZKUNTZA INKLUSIBOA SUSTATZEKO

Irakaskuntza partekatuan, irakasle laguntzaileak, ikasteko eta parte hartzeko oztopoak dituzten ikasleengan ez ezik, ikasle guztiengan jartzen du arreta, eta zeregin nabarmenagoa du ikasgelako saioen diseinuan, irakaskuntzan eta ebaluazioan.

Irakaskuntza partekatua laguntza-sistemaren parte da, ikastetxeetako ohiko antolamenduarekin haustea errazten duten jardunbideak baitakartzatza, eta laguntza gehienak erreferentzia-gelatik kanpo egiten dira era sistematikoan. Laguntzak erreferentziako ikasgelatik kanpo emateak sendotu egiten du irakasleen artean oso zabaldua dagoen ustea, hau da, mailen eta jakintzen uniformetasunak ikaskuntzak errazten dituela. Kultura profesionalean oso errotuta dago ikasle horiek irakasle laguntzaileen edo hezkuntza bereziarekin lotutako beste profesional batzuen erantzukizuna eta eskumena direla, beraiek ez duten ezagutza egokia dutenak direlako. Bestalde, ezin da espero ikasleek aniztasunaren pertzepzio inklusiboa izatea euren bizipen-esperientziak irakasleek ez dutela esaten badie.

Laguntza-sistema inklusibo batek nahitaez hartu behar ditu bere baitan lankidetzakomunitatea eraikitzearen alde kontzienteki egiten duen ikastetxearen ekintza guztiak. Laguntza-sistema inklusibo batek aniztasunari arreta ematen dioten profesionalen lanetik harago doazen beste dimentsio batzuk ere jaso behar ditu, hala nola lidergo banatua, familien parte-hartzea ikasleek edo euren ikaskuntza-prozesuan parte hartzea (Rapport *et al.*, 2019; Sandoval *et al.*, 2022).

Horrekin ez dugu esan nahi oso laguntza espezifikoko jakin batzuk espazio desberdinetan egin behar ez direnik, betiere helburua ikasleak euren ber-

dinen taldearekin parte hartzeko eta ikasteko prestatzea bada. Izan ere, irakaskuntza partekatuko esperientzia finkatu asko aniztasunaren arretari ikuspegi inklusiboagoa emateko jarri ziren abian. Padre Piquer Prestakuntza Zentroan egindakoa da gure herrialdean aitzindari izan den esperientzietako bat, eta egileetako batek azaldu digunez segregazio egoera normalizatuekin hausteko lehentasunezko helburuarekin sortu da:



«Duela hogeitaz hamar urte, zehazki, ikastetxea egoera konplexuan zegoen, batez ere ikasleen heterogeneotasunaren ondorioz [...] Beraz, esango genuke gaur egungo ikuspegi arazo batetik sortu zela, batez ere ikasleen heterogeneotasunetik eratorritako behar batetik. Azkenean ikastetxearen dimentsio guztiak hartu zituen zailtasun horren aurrean, irakasle talde bat elkartu ginen zer egoeratan geunden aztertzeko eta, batez ere, aniztasunari erantzuten saiatzeko. Aniztasunari arreta emateko proposamen gisa sortu da gure proiektua; izan ere, garai horretako eta gaur egungo ikasleen ezaugarriak kontuan hartuta, azkenean proposamenak esparru legegilean jasotzen dira beti. Segregaziotik igarotzen dira. Ikasle batzuk laguntzara, banaketara, lotura-geletara eta abarretara ateratzen dira. Orduan, hainbesteko aniztasuna duten ikasleak dituzunean, konturatzen zara hongoi ikastetxe muntatu behar dituzula. Hongoi ikastetxe bereizi. Orduan, eseri egin ginen ikusteko ea gai ginen hain zuzen ere eredu inklusiboagotik sortuko zen proposamen bat diseinatzeko».

**(Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakaslea,
Padre Piquer Prestakuntza Zentroa, Madril)**

Puigdemívol eta Petreñasen arabera (2019), betidanik, laguntza ikasleen-
gan zentratu da haien zailtasunak konpentsatzeko, eta ikuspegi inklusi-
botik, berriz, ikasgela arruntean zentratzen da; izan ere, espazio horretan
ikus daiteke ikasleak nola egiten dien aurre zereginei, eta nola elkarrrera-
giten duen ikaskideekin eta irakasleekin. Era berean, ikasgelan ikusten da
irakasteko eta ikasteko prozedurek eta ikasleen arteko elkarrekintzek nor-
banakoen eta talde osoaren ikaskuntza errazten dutela. Bideo honetan,
Clara Campoamor eta Luis Buñuel ikastetxe publikoetako irakasleek eta
espezialistek argi eta garbi azaltzen dituzte irakaskuntza partekatua-
ren bi-
dez ematen diren laguntza inklusiboen gaitasun hezitzaileak eta emozio-
nalak, bai ikasle guztientzat, bai irakasleentzat eurentzat, ikasgela behar
bezala antolatzea eta alde aurreko plangintza egitea eskatzen duen me-
todologia zorrotza izan arren.



INKLUSIORAKO KOIRAKASKUNTZA (Bideoa)

Laguntza inklusiboarekin, irakasle espezialisten zeregina bitartekaritza-
ra aldatzen da, ikasle jakin bati zuzeneko laguntza eman beharrean. Ikasle
guztiak dira bitartekaritza horren onuradun, eta, beraz, tutorearentzako
laguntza izango da. Bi irakasleek, elkarlanean, ikaskuntzak eta ikasgelako
giro egokiari eustea landuko dituzte. Profesionalek zereginak premien
arabera trukutzen dituzten irakaskuntza partekatuko egoera tipikoa da.
Hezkuntzako laguntza inklusiboen oinarritzako premisetako bati erantzuten
zaio, hau da, ikasleek euren taldearen dinamikan ahalik eta gehien par-
te hartzeari eta elkarrekintzari. Adibide on bat bideo honetan aurkituko
dugu. Ponce de León ikastetxeko bigarren hezkuntzako talde batean ma-
tematika nola irakasten den ikus dezakegu.



**KOIRAKASKUNTZAKO JARDUNBIDEA. MATEMATIKA
INKLUSIBOAK (Bideoa)**



Koirakaskuntza ikasgela batean
Iturria: Manuel Altolaguirre HLHI, Malaga

Zalantzarik gabe, irakaskuntza partekatuak taldeko kide izatearen sentimendua indartzen du ikasle guztiengan, eta, Goodenowren hitzetan (1993), honela definitzen da: «ikasleak pertsonalki zenbateraino sentitzen diren eskolako ingurune sozialean errespetatuta, barneratuta eta lagunduta» (80. or.). Irakasle laguntzaile baten hitzetan, ez dago zalantzarik: «egoera emozionalari, motibazioari eta trebetasun sozialei dagokienez, ikasgelan askoz hobeto egiten da lan. Eta horrek, azkenean, [ikasleak] curriculumaren ikuspegitik hobeto aritzea eragiten du». **(PTko irakaslea, Albalat BHI)**

Ikasgelatik kanpo esku hartzeak testuinguru probeta bat sortzen du, ez jasagarria, ezta laguntzak gauzatzen diren edo gauzatzea espero den testuinguruetara transferitzeko modukoa. Beste irakasle laguntzaile batek azaldu duenez, ikasgelatik kanpoko esku-hartzeak fikzioa sortzen du, hau da, ikasleek euren portaerak hobetzen dituzte, eta ez da ulertzen, horrela hautemanenez gero, ikaskide guztiekin elkarreragiten ez dutelako dela. Bere hitzetan, «ikasgela arruntean, hau da, euren testuinguru naturalean, soziabilitaterako eta sozializazio naturalerako espazioan eman behar dira tresnak». **(Lehen Hezkuntzako irakaslea, Miguel de Cervantes HLHI, Andaluzia)**

Aniztasuna irakaskuntza partekatutik artatzen den ikastetxe bateko zuzendariak ildo hori bera azpimarratu du. Ikasle guztientzat onuragarriena laguntza espezifikoak erreferentziako ikasgelan egitea da:

«[...] hezkuntza arloko laguntza behar duen ikaslea edozein profilekoa dela, positiboena ikasgelan geratzea eta taldearekin lan egitea pentsatzea da. Bai ikasle horrentzat, bai taldeko gainerako kideentzat. Horregatik, lehen aipatu dut talde mailan lan handia egiten dela [ikaskideek] uler dezaten beste ikaskuntza erritmo batzuk daudela, beste profil batzuk daudela. Denbora gehiago edo gutxiago beharko dute, baina talde berean daude, gainerako ikaskideen komunitate berean».

**(Lehen Hezkuntzako irakaslea,
Luis Buñuel HLHI, Madril)**

Irakaskuntza partekatua inklusiorako: onurak ikasleentzat

Gaitasun desberdinak dituzten ikasleak ez dira etiketatuta gertzen ikasgelako taldetik irten behar izateagatik.

Ikasle guztiei arreta hobea ematea dakar.

Ikasgelan gertatzen dena hobeto ezagutzeko aukera ematen du, eta, beraz, baita neurri espezifikoak premietara egokitze aukera ere.

Ikasleen autonomia errazten du ohiko inguruneetan, eskolako giroa eta bizikidetza sustatzen ditu, eta taldeen kohesio-prozesuak eta berdinen arteko elkar ezagutza bultzatzen ditu.



Egoera emozionala partekatzeak, lehentasunak adierazteak eta ikaskideekiko enpatia sentitzeak, irakaskuntza partekatzeko ez ezik, lanaldiaren egunerokotasuna partekatzeko beharrezkoa den lan giroa osatzen laguntzen du. Hala ere, komunikazio guztietan bezala, desadostasunak edo gatazkak sor daitezke, eta garrantzitsua izango da jakitea nola eragiten dioten gure lanari eta zein diren horiei aurre egiteko modurik egokitzailenak. Emozioen kudeaketa funtsezkoa da irakaskuntza partekatu proiektu batean parte hartzeko. Jarrera pertsonalaz gain, profil profesionalaren osagai gisa ere ulertu behar da. «Kontua ez da lankideen lagunak izatea» (Bigarren Hezkuntzako irakaslea, Juan de Villanueva BHI, Madril), «gatazkak nola kudeatu jakiteko prestatzea baizik» (Haur Hezkuntzako irakaslea, Armentia Ikastola, Euskadi).

Agerikoa da gatazka elkarrekintza profesionalen berezko zerbait dela. Irakasleek arreta handia jartzen dute gatazkak ebazteko mekanismoetan. Irakasle baten hitzetan, «komunikazioa eraikitzailea izan behar da, eta ez zara tirano edo pertsona otzana bihurtu behar» (Lehen Hezkuntzako irakaslea, Santa Barbara IP). Azken batean, ulertzen da irakaslekideen arteko komunikazioa dela mekanismorik onena arlo profesionalean eta emozionalean hain zorrotza den metodologia aplikatzean planteatu daitezkeen gatazkak konfiantzatik konpontzeko:



«[...] azkenean denok gara desberdinak, eta bakoitzak modu batean ikusten ditu gauzak. Baina, beno, horretarako dago hitz egitea, elkartzea, alde onak eta txarrak ikustea. Eta gero azkenean, egia da, oso erabilgarria da gure funtzioak hain mugatuta izatea, bakoitzak jakin dezala zer egin behar duen. [...] Nire ustez, gaiak konpontzeko modua zure egitekoa noraino iristen den argi izatea da, beti arrazoituz eta zentzuz, azkenean».

**(Lanbide Heziketako irakaslea,
Puerta Bonita BHI, Madril)**

Askotan gatazka hazteko aukera dela errepikatzen den arren, ez da sinpletasunean erori behar, alegia, beti borondate onez eta besteekiko enpatiaz ebatziko dela pentsatzean. Gaizki ebatzitako gatazkek gordeta dira. Irakaskuntza partekatua ikastetxeko estrategietan sartu nahi bada komenigarria litzateke gatazken ebazpenari buruzko prestakuntzaren bat egitea.

Hausnarketa gisa, hurrengo taulan gatazka-egoeretan bat-batean agertzen diren zenbait prozedura desegokitzailerik aipatzen dira. Identifikatzea komeni da, saihestu ahal izateko.

3. taula
Aurre egite kognitiborako estrategia desegokitzailak

Prozesua	Zertan datza?	Nire pentsamenduen adibideak
Hausnartzea	Sentimenduei eta arazoari buruz gehiegi pentsatzea dakar, arazoa jada igaro bada ere.	Egoera: nire lankideak berandu erantzun dio hurrengo edukirako nire aldaketa proposamenari. Pentsamenduak: «ez dezala pentsa orain aldaketak azken unean sartuko ditudanik», «ez badu erantzuteko denborarik, nik gutxiago azken orduan dena egiteko», «hurrengoan nik ere nahi dudanean erantzungo dut».
Katastrofismoa	Gehiegizko pentsamenduak edo neurririk gabeko ondorioak aurreratzeari egiten die erreferentzia.	Egoera: hurrengo edukiak emateko aldaketa proposamen bat egin nahi dut. Pentsamenduak: «ia hobe ez egitea, nire proposamenak ez direlako bereak bezain onak», «nire proposamenak ez duela ezertarako balio esango dit», «ziur tontakeria hutsa dela, eta proposatzen dudana-ri barre egingo diola».
Errua beste pertsona batzuei egozte	Errua beste pertsona batzuei egozte gertakariaren edo ondoezaren arrazoiak beste bati egozteko estrategia da.	Egoera: ikasgela zaila, gehiegi hitz egiten da eta diziiplina arazoren bat du. Pentsamenduak: «errua inplikatzan ez diren, ondo hezten ez duten eta etxean araurik jartzen ez duten familia da», «nire lankideak ez du maila ematen, dena nik egin behar dut, lagundu baino gehiago oztopatu egiten nau».
Errua norbere buruari egozte	Egoera negatiboari aurre egin behar izatea dakar, gertatu diren moduari eta zergatiari erantzukizunez helduz.	Egoera: ikasgela zaila, gehiegi hitz egiten da eta diziiplina arazoren bat du. Pentsamenduak: «egoera kudeatzeko tresnarik ez dudalako portatzen dira horrela», «ez dut behar besteko eta behar adinako preskakuntzarik», «ez diot ezertan laguntzen nire lankideari».

Iturria: «Cognitive Emotion Regulation Questionnaire» (CERQ)
(Garnefski, Kraaij eta Spinhoven, 2001, gaztelaniako itzulpena: Domínguez, Lasa, Amor eta Holgado, 2013).

3.5

ZEINTZUK DIRA IRAKASKUNTZA PARTEKATUAREN JARDUNBIDEAN AURKI DITZAKEGUN OZTOPOAK?

Irakaskuntza partekatuak ez du behar bezala funtzionatzen irakasleak aldaketari, segurtasunik ezari eta bateraezintasunari aurre egiten dienean, horrek ez baitu irakasle bikotearen arteko dinamika errazten.

(Puerta Bonita BHIko ikasketa-burua, Madril)

Orain arte ikusi dugun bezala, irakaskuntza partekatuak erronka ugari planteatzen dizkie irakasle taldeei, eta erronka horiek plangintza, koordinazioa, lankidetzeta eta konpromiso pertsonal dosi handiarekin gainditzeko dituzte. Bidegabeak izango ginateke proiektu egonkorren garapena zailtzen duten antolaketa-gabeziak ezabatzeko administrazioek izan behar duten inplikazioaz ohartaraziko ez bagenu. Ikusi dugu ingenioak eta konpromisoak a priori gaindiezinak diren oztopoak saihesteko aukera ematen dutela, hala nola plantillen eskasia, ordutegietan lekurik ez egotea. Irakaskuntza partekatuko proposamenak ez dira jasangarriak izango irakasleen etengabeko gehiegizko ahalegina eskatzen badute, zuzendari-tza- eta irakasle-taldeei behin eta berriro entzun diegun bezala:



«[...] Ezin duzu behartu. Hasieran lan nagusia jendeari horrek zituen onurak ikusarazten saiatzea izan zen, zailtasun asko, arazo asko, baititu, baina nik uste dut batez ere jendeak onurak ikustea azpimarratu zela. Eta, oro har, jendeak ikusi egiten ditu. Orduan, uste dut, azkenean, jendeak bat egiten duela zein ona den ikusten duelako, baina arazoak egon badaude».

(Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasketaburua, Albalat BHI, Extremadura)

Irakaskuntza partekatuko proiektuak sendotzeko prozesu luzea behar da, ez bakarrik prestakuntzakoa, kontzientzia hartzekoa batez ere, Paulo Freirek adierazitako esanahi klasikoan. Padre Piquer Prestakuntza Zentroko irakasle batek azaldu duenez, irakaskuntza partekatua «ez da soilik hezkuntza proiektua, proiektu ideologikoa ere bada»:

«Are gehiago, une hartan jende askok ez zuen proiektuan pentsatzen eta sinesten. Denbora igaro ahala gauzak aldatuz joan dira. Esan nahi al du klaustro osoa dagoela [alde]? Ez, proiektu hori ez delako soilik hezkuntza-proiektua, proiektu ideologikoa ere bada, pertsonak, ikasleak, ulertzeko eta irakasteko eta ikasteko prozesua bera ulertzeko modu jakin batean oinarritzen delako».

(Padre Piquer Prestakuntza Zentroko irakaslea, Madril)

Berak adierazi duenez, hogeitaz hamar urteko esperientzian, irakasleen hautaketa eta prestakuntza hobetzearen aldeko apustua «kultura» profesionala osatuz joan da, eta, beraz, gaur egun “[klaustroko] irakasleen % 70-80 baino gehiago erabat lerrokatuta dago proiektuarekin”.

Behin eta berriro esan dugun bezala, elkarlaneko prestakuntzak funtsezko zeregina du. Oro har, irakasleek ez dituzte ezagutzen irakaskuntza partekatuko ereduak eta horiek eskatzen dituzten trebetasun profesionalak. Koirakaskuntzak espazio pribatibotzat hartuta betidanik ikasgela barruan erabakiak banaka hartzearekin identifikatzen den irakasleen autonomia ulertzeko modua birformulatzea eskatzen du. Ildo horretan, irakaskuntza partekatuak ikasgelan ohikoak diren, estatus hierarkikoa zehazten duten eta hezkuntza-laguntzak ematen dituzten irakasleen mendeko zeregina ezartzen duten botere-harremanak haustea dakar. Ikasleek hautematen dute egoera hori, eta horrek ez du laguntzen ezberdintasuna normaltasunez ulertzeko orduan. Oso garrantzitsua da hasieratik harreman orekatua ezartzea irakasleen artean, ikasgela barruan joka dezaketen rolak hierarkikoki interpretatu ez daitezen. Irakasleen arteko komunikazioa ere asko zaindu behar da, adierazi dugun bezala, eta hitzik gabeko alderdiak eta alderdi emozionalak ere hor sartzen dira.

Konfiantza falta eta laneko giroaren narriadura ekar ditzaketen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuei buruzko desberdintasun logikoak eztabaidarako eta garapen profesionalerako aukera gisa bideratu behar dira. Ikasleen aurrerapen akademikoan eta sozialean irakaskuntza-erantzukizunak esleitzea bereziki problematikoa izan daiteke. Ezin dugu alde batera utzi ikasgelako eta arloko irakasleek zein laguntzakoek bakoitzaren beharretatik gain ikasle guztientzat zereginak egitea eskatzen duten estrategia didaktikoen potentzial gatazkatsua (Fielding-Barnsley, 2005; Lindqvist *et al.*, 2011; Sandoval *et al.*, 2018). Azkenik, nabarmendu behar da, berriro ere, zuzendaritza-taldeek konpromisoak zailtasunak detektatzeko eta ozto-poak gainditzea ahalbidetuko duten prozedurak gaitzeko duen garrantzia.



Plangintzan lagunduz
Iturria: Bovalar BHI, Castelló

TEORIATIK PRAKTIKARA NOLA ANTOLATU KOIRAKASKUNTZA?

Ikusi dugun bezala, irakaskuntza partekatuak programazioa, estrategia didaktikoen antolaketa eta ikaskuntzak eta esperientzia bera ebaluatzeko zenbait prozedura eskatzen ditu. Parte hartzen duten irakasleek saioaren helburuak ezagutzea, bakoitzak ikasgelan izango duen zeregina adostea eta dauden espazioak eta denborak egokitzea eskatzen du. Kapitulu honetan, irakaskuntza partekatua nola antolatu aztertuko dugu, plangintzatik ebaluaziora, bai eta ikasgelako egiturak eta estrategiak ere. Ildo horretan, oso kontuan hartu dira zuzenean ezagutu ditugun ikastetxeen esperientziak.



4.1

IRAKASKUNTZA PARTEKATUA PLANIFIKATZEA

“Plangintza saioetan orkestratzen da dena”

Plangintza “zinemako gidoi” baten modukoa da, denek ezagutu behar dute eta argi izan behar dituzte euren funtzioak.

(José Saramago BHIko ikasketa-burua, Madril)

Plangintza bat dator irakaskuntzako funtzio profesionalarekin. Irakaskuntzako eta ikaskuntzako estrategia guztietan plangintza funtsezkoa bada, irakaskuntza partekatuko modalitateen kasuan bereziki garrantzitsua da. Beste lankide batekin espazioa eta denbora partekatzeak ekintza guztiak behar bezala koordinatuta egotea eskatzen du, bestela, irakaskuntza zailtzeaz gain, ikasgelako giroari eta irakaslekideen harreman pertsonalei eragingo dien nahi ez den zerbait gerta daiteke. Irakasleek eta ikasleek une bakoitzean zer egin behar duten jakin behar dute, eta hori ezin da inprobisazioaren esku utzi. Koordinazio saioa amaitu ondoren, irakasle bakoitzak jakin behar du zein diren bere egitekoak, zein material prestatu behar duen, nola egokitu behar duen ikasleentzat eta ikasgelan egingo diren zereginak. Planifikatzeko modua askotarikoa izan daiteke, klaustro bakoitzaren eta irakasle-talde bakoitzaren lan egiteko moduaren arabera. Hau da, ez dago funtzionatuko duen formula bakarra, talde bakoitzak berea bere testuinguru eta beharretara egokitu behar du, eta funtzionatzen ez badu, birpentsatu. Adibidez, La Llacuna de Poblenou eskolan koirakaskuntza sistematizatuta dute ikastetxe mailan zirkulazio libreko giroetan eta proiektuen araberrako lanean. Lehen hilabetea antolaketarekin, kudeaketarekin, edukiarekin eta ebaluazioarekin erlazionatutako alderdiak planifikatzen, eztabaidatzen eta doitzen ematen dute.



Iturria: la Llacuna de Poblenou (Katalunia)
Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea

Garrantzitsua da azpimarratzea plangintzak ez duela soilik hezkuntza arloko edukien antolaketa eta ebaluazio-materialen eta -estrategien diseinua barne hartu behar. Irakaskuntza partekatuan oso garrantzitsua da irakasle bakoitzari dagokion zeregina planifikatzea, ikasgelan zer dagoen baimenduta eta zer ez adostea. Horrela, plangintzak irakasleek gatazkak elkarrekin konpontzen laguntzen du.

Jardunbidean ikusten da irakasle batek azaltze eta zuzentzen badu beti klasea, beste irakaslearen lana ez dela aprobetxatzen, bere egitekoa mahaien artean paseatzera eta nahi duenari edo eskatzen dionari laguntzera mugatzen bada. Beraz, ikasleei laguntzak nola emango zaizkien planifikatu behar da. Ildo horretan, ez da onuragarria izaten ahalik eta ikasle gehienengana iristen saiatzea, laguntzak oso azalekoak izango bailirateke (laguntza puntualak). Azkenik, bi irakasleek laguntza ematen dutenean, ikasgelako koadrante-maila adostu behar dute, beti ikasgela osoaren ikuspegia izan dezaten.

Irakaskuntza partekatuaren plangintzak honakoak erabakitzea dakar:

Edukien diseinua, zer material erabili eta estrategia didaktikoak.
Irakasle bakoitzak izango duen zeregina.
Zer arau eta errutina aplikatuko zaizkion ikasgelaren kudeaketari.


Irakaskuntza partekatuaren plangintza eraginkorra

Irakaskuntzako plangintza ikasle guztiekin lortu nahi diren oinarrizko jakintzak lortzetik abiatu behar da. Hasteko, beraz, gaitasun espezifikokoak, ebaluazio-irizpideak eta irteera-profilaren deskribatzaile operatiboak adostu behar dira.

Plangintzak kontuan izan behar du, batetik, ikasleek zer egingo duten, eta, bestetik, irakaslekide bakoitzak une bakoitzean zer egingo duen. Oso garrantzitsua da ikasgelaren kudeaketari dago-kion guztia aurreikustea, bizikidetza arauak, besteak beste.

Plangintza modu sistematikoan egin behar da, astean behin gutxienez. Programazioek dinamikoak izan behar dute, sor daitezkeen zirkunstantzietara egokituta. Irakaskuntzako jardunaldiak irauten duen bitartean ez denez erraza biltzeko espazioak prestatzea, irakasle-taldeek horretarako teknologiak erabiltzen dituzte, baita modu asinkronoan ere, hainbat bitartekoren bidez, hala nola WhatsApp edo drive bidez.

3. irudia
Irakasleen arteko akordioak irakaskuntza partekatuari buruz



Iturria: Egileek egina

Gidaren bigarren zatian jasotako laneko materialen artean, ikasgela arrunteko irakaskuntza partekatuko ikasketak planifikatzeko diseinatu-tako txantiloiredu bat aurkitu ahal izango da.




2. lanerako materiala

4.2


IRAKASKUNTZA PARTEKATUA IKASGELAN
ANTOLATZEKO EGITURAK

Jarraian, irakaskuntza partekatuen zenbait modalitate aurkeztuko ditugu, ikasgelako talde osoarekin edo ikasgela taldeetan antolatuta. Hala ere, gure herrialdeko eskola-eremuan eredu teorikoak hezkuntza-helburuetara eta eskura dauden baliabideetara egokitutako irakaskuntza partekatuko eta konbinatutako jardunbideak ikusi ditugu.

4.2.1 Ikasgelako talde osoarekin



a) Irakasle batek irakatsi egiten du eta beste batek behatu egiten du



Irakasle batek ikasgelako dinamika zuzentzen du; besteak, berriz, informazio espezifikoa biltzen du behaketaren bidez, aldez aurretik programatutako irizpide batzuetan oinarrituta. Koirakaskuntzako jardunbidea izan dadin, biek txandakatu behar dute euren zeregina, eta haien artean harreman hierarkikoak ezartzea saihestu. Espazioko hainbat antolaketarekin aplika daiteke, irakaslekidea ikasleekin elkarreraginean behatzeko.

Helburua:



Ebidentziak jasotzea, ikasleen zailtasunak goiz detektatzeko, ikasleen ikaskuntzarako eta partaidetzarako oztopoak aztertzeko eta irakaskuntza-jardunbideak hobetzeko.


4. taula

Irakasten duen irakasle baten eta behatzen duen beste baten arteko koirakaskuntza antolatzeko indarguneak eta gomendioak

INDARGUNEAK	GOMENDIOAK
• Laguntza trinkoa eskaintzen die behar duten ikasleei. • Ebidentziak ematen ditu ikasgelaren dinamikari eta aniztasunarekiko arretari buruzko erabakiak hartzeko. • Parte hartzeko eta ikasteko beharrak eta trabak garaiz detektatzeko aukera ematen du. • Irakaskuntzako jardunbideen koebaluazioa/analisia egiteko aukera ematen du.	• Ez egin modu puntualean, modu jarraituan eta sistematzatuan baizik. • Denek aplikatu, rolak txandakatzuz. • Ez epaitu eta ez sentitu epaitua.

Iturria: Egileek egina

b) Irakasle batek irakatsi egiten du eta beste batek lagundu egiten du



IRAKASLE BATEK IRAKATSI

IRAKASLE BATEK LAGUNDU

Irakasle batek jarduera zuzentzeko ardura du, eta besteak, berriz, lanean laguntzen die ikasleei, haien portaera gainbegiratzuz edo/eta atazak berrikusiz. Aurreko modalitatean bezala, irakasleek euren zeregina txandakatu behar dute, hierarkiak saihestuz. Garrantzitsua da azpimarratzea, ikasgela barruko irakaskuntza-rolak behar bezala definituta ez badaude, pentsa daitekeela laguntzako irakaslea ikasle batzuei laguntzeko baino ez dagoela eta, beraz, ez dela garrantzitsua ikasgelaren jardunean.

Helburua:



Ikasgelako giroa hobetzea eta ikasleei laguntza pertsonalizatuagoa eskaintzea.


5. taula

Irakasten duen irakasle baten eta laguntzen duen beste baten arteko Koirakaskuntza antolatzeko indarguneak eta gomendioak

INDARGUNEAK	GOMENDIOAK
• Laguntza trinkoa eskaintzen die behar duten ikasleei. • Baliagarria da ikaskuntza edo/ eta jokabide pertsonalizatuak indartzeko. • Irakasleen artean laguntzarako estrategiak transferitzen ditu.	• Rolak trukatzeari, irakasle laguntzaileak «laguntzaile» edo «bisi-tari» gisa duen estereotipoa ez indartzeko. • Ikasleei laguntzea, haien autonomia modu progresiboan sustatuz. • Estrategia hori gehiegi ez erabiltzea.

Iturria: Egileek egina

c) Talde-irakaskuntza



**TALDE-
IRAKASKUNTZA**

Bi hezitzailek edo gehiagok ikasgelako taldearen irakaskuntza partekatzen dute, informazioa emanez eta ikasle guztiei lagunduz. Uneak eta esku-hartzeak banatzen dira, eta, horrela, denek hartzen dute parte eskola-saioan, modu antolatuan. Denborak banatzeaz gain, erantzukizunak ere banatzen dira; izan ere, horri esker, ikasle guztiek baldintza eta autoritate berberak dituztela hautematen dute.

Aurreko modalitateekiko aldea da irakaslekideek aldi berean hartzen dutela parte ikasgai desberdinen edukien garapenean, edo aldi berean bi hizkuntzatan irakasten zaienean, irakaskuntza elebidunean gertatzen den bezala.



**KOIRAKASKUNTZAKO JARDUNBIDEAK. IKASGELA
ELEBIDUNA (Bideoa)**

Talde-irakaskuntza beste koirakaskuntza-modalitate batzuekin konbina daiteke, baldin eta ikasgelako talde osoa banatzen ez bada.



KOIRAKASKUNTZAKO JARDUNBIDEA. DIZIPLINARTEKO PROIEKTUAN TALDEAN IRAKASTEA (Bideoa)

Helburua:



Ikaskuntza optimizatzea, ezagutzako ardatz desberdinak garatuz, diziplinar-teko lanketarekin (zeregin integratua).

Eduki edo/eta dinamika desberdinak landu ahal izatea, irakasleak elkarren artean txandakatuz.

Ikasgelako giroa hobetzea.

6. taula
Irakaskuntza partekatua taldean antolatzeko indarguneak eta gomendioak

INDARGUNEAK	GOMENDIOAK
• Irakasle biak edo gehiago hierarkia-maila berean jartzen ditu ikasgelan. • Irakaskuntza perspektiba eta estilo desberdinekin aberasten da. • Diziplinarteko konexioak gaitasunen araberako ikaskuntza errazten du. • Ikaskuntza eta irakasleen arteko laguntza areagotzen dira.	• Irakasleen artean aldez aurretik konfiantzazko giroa sortzea, ikasgelan berdintasunezko posizioa lortzeko. • Oharkabeen pasa daitekeen arren egoera zaurgarrienean dauden ikasleei laguntza ematea. • Komunikazio oso arina sustatzea. • Aurretiazko plangintza sendoa goa.

Iturria: Egileek egina




Taldeko irakaskuntza-eredua

Iturria: Julio Verne BHI

4.2.2 Ikasleak taldetan banatuta



a) Eremuen edo/eta zirkulazio librearen arabera irakaskuntza



Irakasleak talde txikitan antolatutako ikasleen garapen libre eta autonomoa orientatzeaz arduratzen dira, ikasgelako hainbat espaziotan (proiektuak, txokoak, eremuak, etab.) elkarrekintzarako eta garapenerako tresnak emanez. Irakasle bakoitza talde edo urtaro batez arduratzen da. Talde guztiek irakasgai bereko edukiak aldi berean lantzen dituztenean edo talde bakoitzak eremuka irakasgai desberdinak lantzen dituztenean aurki ditzakegu modalitate honen erreferentziak. Ikasleek eremu guztietatik igaro behar dute zeregin bakoitzerako alde zuzenetik programatutako denboran.



**IKASGELAREN ANTOLAKETA EREMUEN ARABERA
(Bideoa)**

Helburua:



Berdinen arteko ikaskuntza modu autonomoan orientatzea, ikasteko erritmo eta interes desberdinei erantzunez.


7. taula

Irakaskuntzarako indarguneak eta gomendioak, eremuen edo/eta zirkulazio askeraren arabera

INDARGUNEAK	GOMENDIOAK
- Ikasle guztiekin aldi berean lan egiteko aukera ematen du, talde malguen eta konplexutasun maila desberdinetako jardueren birtartez (maila anitzeko irakaskuntza) eta hainbat aurkezpen-moduren bidez, ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU) aplikatuz. - Ikaskuntza norberaren erritmorara egokitzen laguntzen die ikasleei, modu autonomoan, autoerregulazioaren bidez. - Ikasleek elkarreraginean aritzea, elkar ezagutzea eta aurrera egia sustantzen du. - Sormenaren eta talentu-aniztasunaren sustapen aktiboa bultzatzen da, ikasleek hainbat ikasgelatan edo/eta hezkuntza-espaziotan parte hartu eta elkarreragin ahal izan dezaten.	- Talde heterogeneoetan antolatzea, kideen arteko atzeraelikatzea errazteko. - Elkarbizitzarako jarraibideak eta arauak ezartzea, prozesua optimizatzeko. - Ibilbideeen jarraipen pertsonalizatua egitea, eskumenen garapena ziurtatzeko. - Ikasleen parte-hartzea bermatu behar da hezkuntza-esparru edo/eta -proposamen guztietan.

Iturria: Egileek egina

b) Irakaskuntza paraleloa



Irakasleak talde txikitan antolatutako ikasleen garapen libre eta autonomia orientatzeaz arduratzen dira, ikasgelako hainbat espaziotan (proiektuak, txokoak, urtaroak, etab.) elkarrekintzarako eta garapenerako tresnak emanez. Irakasle bakoitza talde edo urtaro batez arduratzen da. Talde guztiek irakasgai bereko edukiak aldi berean lantzen dituztenean edo talde bakoitzak eremuka irakasgai desberdinak lantzen dituztenean aurki ditzakegu modalitate honen erreferentziak. Ikasleek urtaro edo eremu guztietatik igaro behar dute zeregin bakoitzerako aldez aurretik programatutako denboran.



KOIRAKASKUNTZAKO JARDUNBIDEA. IKASGELAREN ANTOLAKETA EREMUKA (Bideoa)

Helburua:



Ikaskuntzen pertsonalizazio handiagoa sustatzea, ikasle/irakasle ratioa murriztuta.

8. taula

Irakaskuntza paraleloak irakaskuntza partekatua antolatzeko
indarguneak eta gomendioak

INDARGUNEAK	GOMENDIOAK
• Irakasle berriak irakaskuntza partekatuan hastea errazten du. • Ikasleen parte-hartzea hobetzen du. • Ikasle-irakasle ratioa murrizten du. • Aniztasuna errespetatzen duten laneko giroa eta erritmoa sustatzen ditu. • Ikasleen konfiantza eta segurtasuna hobetzen da, ikasleen parte-hartzea bultzatuz.	• Batzuetan, modu autonomoan lan egingo duen talde bat ezar daiteke. • Malguak izatea eta irakasleen artean komunikazio ona izatea. • Irakasleen koordinazioa indartzea, ikaskuntzak sinkronoak eta orekatuak izan daitezen. • Irakaskuntza-esleipena txandakatzea ikasgelako taldeetan. • Modalitate honek ez du ikasgelaren barruan ezkutuko bikoi-zketa ekarri behar, elkarlanean oinarritutako lan koordinatua baizik.

Iturria: Egileek egina

c) Irakaskuntza alternatiboa



Irakasle batek ikasle-talde batekin egiten du lan, eta beste batek edo batzuek, berriz, talde txikiagoekin ikasgela berean edo horretarako prestatutako espazioetan (liburutegiak, korridoreak, etab.), lantzen ari diren berariazko edukiak ikertzeko, hedatzeko edo indartzeko jarduerak egiteko helburuarekin. Ikasgelako ikasle guztiei eragingo dien taldekatzea da, eta inola ere ez hezkuntza arloko laguntzei erantzuteko estrategia egonkorra.

Helburua:



Ikaskuntza pertsonalizatzea, funtsezko eduki instrumentalak indartuz.

9. taula

Irakaskuntza alternatiboko modalitaterako indarguneak eta gomendioak

INDARGUNEAK	GOMENDIOAK
• Irakasleen eta ikasleen arteko elkarrekintzak zabaltzeko aukera ematen du. • Eduki berak ikuspegi eta material desberdinetatik irakasteko aukera ematen du, maila desberdinetan. • Diziplina arteko proiektuen garapena errazten du. • Ikasleen ikaskuntzaren behar pertsonaletara egokitzen da. • Kontuan hartzen ditu ikasleak ikasteko dituen oztopoak eta aukerak. • Onuragarria izan daiteke ikas-tetxera sartu berri diren eta ama-hizkuntza desberdina duten kultura-eremuetatik datozen ikasleen hizkuntza-gaitasuna indar dezaten.	• Gogorarazi behar da modalitate horrek ez dakarrela bikoizketa, elkarlanean oinarritutako lan koordinatua izaten jarraitu behar duela. • Azalpen zehatzagoa behar izan dezaketen edukietarako erabiltzea.

Iturria: Egileek egina

4.3


IRAKASKUNTZA PARTEKATUA IKASTETXEETAKO JARDUNBIDEAN

Aurreko atalean irakaskuntza partekatuko hainbat eredu teoriko aurkeztu ditugu. Hiru ikasgelako taldearekin aplikatzeko, eta beste hiru, erreferentziako ikasgela barruan hainbat multzotan banatzeko. Hala ere, jarraian ikusiko dugun bezala, jardunbidean eredu teorikoak egokitu egiten dira, baita konbinatu ere, ikasgelan lana partekatuko duten profesionalen profilaren eta premia pertsonalen arabera. Irakasle tutoreen, espezialisten eta irakasleak ez diren beste eremu batzuetako profesionalen benetako taldeak ezagutuko ditugu. Abiapuntua ikasle guztientzako ikaskuntzaren helburua eta estrategia metodologikoak definitzea izango da (4. irudia).



4. irudia

Irakaskuntza partekatua antolamendu-egiturak planifikatzea



Iturria: Egileek egina

4.3.1 Irakaskuntza partekatua irakasle laguntzaileekin



Argazkia: Luis Buñuel HLHlko klasea (Madril)

Laguntza-sistemak eta -mekanismoak ikaskuntzaren parte dira, eta horien koordinazioaren ardura pertsona-talde txiki batek har dezakeen arren, ikastetxeko langile guztiek hartu behar dute parte laguntza-jardueretan (Booth eta Ainscow, 2002). Ikuspegi horretatik, laguntzako irakasle espezialistek euren zeregina aldatzen dute, arretagunea irekiz, hezkuntza-premia espezifikoak dituzten ikasleak ez ezik, talde osoa ere barne hartzeko. Horrela, tutoreak ikasle guztiekiko duen erantzukizuna indartzen da. Irakasle laguntzaileek zeregin garrantzitsua izango dute gainerako lankideen ahalduztzean, ikasle guztiei irakasteko erantzukizunak gauzatu ahal izan ditzaten (Fielding-Barnsley, 2005; Sandoval *et al.*, 2012; Sandoval *et al.*, 2019).

Irakaskuntza partekatuko jardunbide guztietan bezala, beharrezkoa da irakasleak ados jartzea bakoitzak irakaskuntza-jarduerak antolatzeke eta garatzeko izango duen eginkizunari buruz. Kontua «batek irakatsi» eta «beste batek lagundu» egituraren ez erortzea da, ohartarazi dugun bezala, birlatu gabe metodologia horren potentziala aprobetxatzea eragotziko lukeen harreman hierarkikoan ez erortzeko. Berririo diogu funtsezkoa dela ikasgela eta erantzukizuna partekatzen dituzten irakasleak ikasle guztientzat erreferentziazko figura izatea. Helburua laguntzako irakasleen zeregina hezkuntza-premia berezikotzat hartutako ikasleei soilik mugatzen dieten estrategia tradizionalagoak haustea litzateke. Egitura hori onuragarria da espezialistak ikasgelan ez daudenean irakasleak estrategiak ezartzen jarraitzeko trebatzen eta ahalduztzen direlako.

Garrantzitsua da ikasgelaren antolamendua koirakaskuntzako modalitate bakar batera ez mugatzea. Irakasle laguntzaileek eginkizun posibleetako edozein bete dezakete, tutoreekin batera egindako irakaskuntzatik parte hartzean oinarritutako behaketara, dagoeneko ezagutzen ditugun egituren arabera, bai ikasgelako taldearekin, bai taldean lanean ari diren ikasleekin.

Irakaskuntza partekatuak trebetasunak eskuratzea eta garatzea eskatzen du, eta, beraz, prozesu mailakatua da. Modurik errazenetik hasten da: pertsona bat irakaslea da (ikasgelako irakaslea) eta beste bat laguntzailea (laguntzako irakaslea). Egiteko horiek txandakatzea oso garrantzitsua dela ahaztu gabe.

Eskema honetan ikasgelako laguntzetatik benetako irakaskuntza partekatura doan prozesua azaltzen da, horrek dakarren guztiarekin.

5. irudia

Bilakaera ikasgela barruko laguntzatik irakaskuntza partekatura

IKASGELA BARRUKO LAGUNTZATIK IRAKASKUNTZA PARTEKATURA



- 1 Irakasle laguntzaileak ikasle jakin bati laguntzen dio, haren ondoan eseriz, laguntza murrizten joateko.
- 2 Laguntzako irakasleak zailtasunak dituzten ikasle talde txiki bati laguntzen dio.
- 3 Irakasle tutoreak gidatzen du saioa, eta bi irakasleek laguntza ematen diete behar duten ikasle guztiei.
- 4 Bi irakasleak dira saioaren arduradunak eta jarduerak elkarlanean inplementatzen dituzte.

Irakasle batzuek azaldu digutenez, «figurak baino gehiago, jarduerak» zehazten dute zereginen eta rolen trukea:



«[...] normalean tutorea da pisua eramaten duena, eta ni zenbait ikasleri laguntzen ari naiz, eta, “batzuetan, rolak trukatzan ditugu”. Baina, tira, jardueraren arabera da, figuraren arabera baina gehiago. Jardueraren arabera, trukatu egiten dugu».

**(Lehen Hezkuntzako irakaslea,
Clara Campoamor HLHI, Asturias)**

Tutoreen eta espezialisten artean ezagutu ditugun irakaskuntza partekatu jardunbideen inguruko kasuetan, modu naturalean txertatu dute ikasle talde osoarentzako laguntza, eta ez soilik arreta espezifikoa behar dutenentzat. Hori bereziki esanguratsua da, laguntzei izaera inklusiboa ematen zaielako, irakasle batek gogorarazi digunez. Irakasle berak azpimarratu duenez, garrantzitsua da «[ikaslea] bere giroan egotea, bere ikaskideekin, horrek harreman sozialak eta berdinekiko komunikazioa errazten dituelako». (Lehen Hezkuntzako irakaslea, Luis Buñuel HLHI, Madril). Ildo horretan, diagnostikoak saihesteko ahalegina nabarmendu behar da. Bigarren Hezkuntzako irakasle batek argi eta garbi utzi duenez «ez zait gustatzen inoiz ikasleekin esertzea, markatuta bezala sentitzen direlako». (Manel de Montsuar BHI, Lleida)

Era berean, lankide batek azpimarratu du bere ikasleak estigmatizatzea saihestu nahi dela:



«Nik denei ematen diet arreta. Era berean, kontu handiz ibiltzen naiz esleitzen dizkidaten ikasleei etiketa hori ez jartzeko. Badakite, behin klasean nagoenean, denei laguntzeko prest nagoela. Agerikoa da ikasgelara bi kasu jakinengatik joaten naizela, baina alderdi hori asko zaintzen saiatzen naiz».

**(Lehen Hezkuntzako irakaslea,
Armentia Ikastola, Euskadi)**

Ez da ahaztu behar irakasle espezialistentzat pozgarria dela ikasle guztiek gainerako irakasleen maila berean aintzat hartzea eta bigarren mailara baztertuta ez sentitzea. Horietako batek azaldu digunez, «ikasgela barruan lanean ari bazara, ikaslea bertan egotea, parte hartzen aritzea eta bere ikaskuntzak aplikatzen aritzea eragiten ari zara» (Lehen Hezkuntzako irakaslea, Clara Campoamor HLHI, Asturias). Gainera, irakasle batzuek adierazi dute irakaskuntza partekatuak erraztu egiten duela espezialistek soilik hezkuntza-premia jakin batzuekin lan egiteko gaitasun profesionalak eta pertsonalak izatearen ustea haustea. Bigarren Hezkuntzako irakasle batek uste du gai hori hain garrantzitsua denez ikasturte hasieran aztertu beharko litzatekeela, «pertsonek uler dezaten hori dela lan egiteko modua, eta aldatu egin behar dela laguntzak eta koirakaskuntza zer diren dioen sistema». (Bigarren Hezkuntzako irakaslea, Albalat BHI, Extremadura)

Ilido horretan ezagutu dugun esperientzia bikainenetako bat José Saramago BHI-n gauzatzen ari dena da. Irakasle laguntzaileak (PTak eta EHIak) ikasgelako taldeko tutore bihurtzen dira:

«PTak bi taldetan sartzen ziren, eta ia ordutegi osoak horiekin zituzten. Beraz, tutore ere bihurtu genituen. Eta horrek borroka ikaragarria ekarri zigun LPZen [Lurralde Plangintzaren Zuzendaritza], ez baitzuten ulertzen PTEk zergatik izan behar zuten tutore. Argudiatu genuen, borrokatu ginen eta urte askoan, gaur arte, PTak tutore izatea onartu ziguten».

**(Bigarren Hezkuntzako irakaslea,
José Saramago BHI, Madril)**

Aurreko adibidean ikus dezakegun bezala, potentzial handia duen esperientzia da. Oso ondo erakusten du zuzendaritza-taldearen lidergoaren garrantzia.

Azken batean, irakaskuntza partekatuak denboran jarraitzen badu, lausotu egiten da irakasle laguntzaileen betidaniko eginkizuna, eta, horrela, haurrek ez dute tutoreen eta espezialisten arteko alderik hautematen. Oso ondo azaltzen du hori ikastetxe elebidun bateko zuzendaritza-taldeko kide batek, «egia da, azkenean, rola lausotu egiten direla eta irakasle guztiak denek irakasle direla, ikasgelan sartzen diren pertsonak irakasleak dira eta ikasle guztiei berdin laguntzen diete, eta horrek inklusioa benetakoagoa izaten laguntzen du». (Lehen Hezkuntzako irakaslea, Nuestra Sra de Navahonda HLHI, Madril)



Irakasle laguntzailea ikasle-talde bati arreta emanez
eta tutorea beste bati

Iturria: Santa Barbara HLHI, Asturias

4.3.2 Irakaskuntza partekatua irakasle ez diren langileekin

Ikuspegi inklusibotik, ez dugu kontuan hartu behar laguntzak ematen dituzten bakarrak irakasleak direnik, baita irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan esku hartzen duen beste edozein eragile ere (Villa *et al.*, 2013; Parri-lla, 2002; Puigdel·lívol eta Petreñas, 2019). Horrek irakasle ez diren profesionalak barne hartzen ditu, hala nola Gizarteratzeko goi-mailako teknikariak (GT) eta hezkuntzako beste teknikari edo laguntzaile batzuk. Irakasleak ez izan arren, eragile horiek zuzenean esku hartzen dute irakaskuntza-ikas-kuntza prozesuetan, eta, beraz, haien jardunbideak, ñabardurak ñabardu-ra, irakaskuntza partekatuaren esparru orokorraren barruan har daitezke, haien eginkizunen berezitasunak eta laguntzak emateko baldintzak kon-tuan hartuta. Garrantzi berezia hartzen ari da Gizarteratzeko goi-mailako Teknikariaren (GT) figura. Horren gaitasun orokorrak honekin erlazionatuta daude: «gizarteratzeko esku-hartzeak programatzea, antolatzea, inplemen-tatzea eta ebaluatzea, estrategia eta teknika espezifikoak aplikatuz, auke-ra berdintasuna sustatuz». Era berean, Hezkuntza-laguntzako Espezialista (HLE) ikastetxeetako neurri inklusiboei arreta ematen dien taldeko kidea da. (Desgaitasuna duten pertsonei arreta emateko zentroen eta zerbitzuen XV. hitzarmen kolektibo orokorra erregistratu eta argitaratu duen Laneko Zuzendaritza Nagusiaren 2019ko ekainaren 27ko ebazpena).

IRAKASLEAK



IRAKASLEAK EZ DIREN PROFESIONALAK

Heziketa berezia
Gizarteratzeko goi-mailako teknikaria
Hezkuntza-laguntzaile teknikoa

Askotariko eragile horien lankidetzari buruz, Lorategui eta Siles-ek (2019) «koirakaskuntza praktikoa» eta «elkarlanean oinarritutako koirakaskuntza» bereizten dituzte.

6. Irudia

Koirakaskuntza praktikoa eta elkarlanean oinarritutako koirakaskuntza irakasle ez diren langileekin

KOIRAKASKUNTZA PRAKTIKOA

Kontratuzko erantzukizunak eta hezkuntzako esku-hartze osoan parte hartzeko aukera duten eragileak: plangintzan, gauzatzean, koordinazioan, hausnarketan, ebaluazioan, etab.

Hezitzaile laguntzaileak, hezkuntza bereziko laguntzaileak edo teknikariak, haur hezkuntzako teknikariak, laguntzako begiraleak, itzal hezitzaileak, zeladoreak, praktiketako irakasleak, psikopedagogoak, logopedak, etab.

ELKARLANEAN OINARRITUTAKO KOIRAKASKUNTZA

Ikasgelako irakaskuntza- eta ikaskuntza prozesuaren une jakin batzuetan parte hartzen dute, legezko erantzukizunik hartu gabe. Borondatezko parte-hartzea.

Senideak, ikasle ohiak, irakasle erretiratuak, praktiketako ikasle ohiak, emandako zerbitzurik gabeko irakasleak, bizilagunak edo komunitateko beste kide batzuk.

Iturria: Egileek egina

Irakasle ez diren bi talde horien esku-hartzearen berezitasunetako bat erantzukizunen asimetria eta kategoria profesionalek eta aitorpen sozialak markatutako estatus soziala dira. Hezkuntza-zereginaren aurrean erantzukizun maila desberdina izan arren, irakasleak eta irakasle ez diren langileak figura osagarriak eta elkarren mendekoak dira, eta ikasgela barruan dituzten ikuspegia, bizipenak eta ekintzak garrantzitsuak dira. Horregatik, eragile guztiek barruan daudela sentitu eta elkarrekiko errespetuan oinarritutako berdintasunezko elkarriketa izan behar dute. Ildo horretan, funtsezkoa da pertsonen arteko harremanak eta talde lana zaintzea. Ikasgelaren barruan, eragile oro da garrantzitsua, eta horrela hauteman behar dute ikasleek.

Koirakaskuntza praktikoaren eta lankidetzakoaren arteko aldea eragileen zereginetan eta erantzukizunetan oinarrituko litzateke, koirakaskuntza praktikoa hezkuntzako profesionalei eta praktiketako ikasleei baita-gokie, eta hezkuntzako prozesu guztietan parte hartu behar dute. Aldiz, borondatezko eragileek ikasgelako jardunbide jakin batzuetan laguntzen dute, baina, trukeak beharrezkoak izan arren, irakasleak dira planifikatzen eta ebaluatzen dutenak (adibidez, gelen arabera antolaketan esku har dezakete). Kontuan hartu behar da profesionalen lankidetzak ez litzatekeela irakaskuntza partekatu eraginkorra izango rolei, mutualitateari eta erantzukidetasunari dagokienez, baina ikasgela barruan boluntarioek hezkuntzan parte hartzea ahalbidetzen du, erantzukizuna soilik irakasleen gain egon arren.

Estatuko eta, batez ere, nazioarteko esperientzia batzuek argi utzi dute nola integratu eragile horiek modu inklusiboagoan. Irakasle ez diren langile laguntzaileak sartzeari ez da aniztasunari erantzuteko prestakuntza eta esperientzia duten irakasleen faltaren aurreko alternatiba, eta hori konpontzea administrazioari dagokio. Hezkuntzarekiko erantzukidetasun sozialerako eta komunerako mekanismo gisa ulertu beharko litzateke.

10. taula

Koirakaskuntza praktikorako gomendioak

Erakundea	— Irakasle ez diren langileen lan baldintzek ardurekin eta garatutako rolaekin bat etorri behar dute (lanaldi osoa, irakastorduetatik kanpoko ordutegia, egonkortasuna, hasierako prestakuntza eta etengabeko prestakuntza barne). — Irakasle ez diren langileak eskola edo ikasgela bati esleitu behar zaizkio, ez ikasle bati, eta ez da ulertu behar irakaslearen laguntzaile direnik. — Koirakaskuntzak administrazioaren eta erakundeen laguntza behar du. Eskolako politika eta jardunbide bat da (prestakuntza, ordutegien antolaketa, ekipoen erretentzioa, etab.). — Laguntza modu ekitatiboan banatu behar da, erabilgarri dauden eragile guztiak eta ikasgela bakoitzeko beharrak kontuan hartuta.
Laguntzaren intentsitatea	— Irakasle ez diren langileen jardunbideak laguntza-sistema integratu eta arinaren barruan ulertu behar dira. — Irakasle ez diren langileak, laguntza intentsibo gisa, irakasle laguntzaileekin gertatzen den bezala, hain murriztaileak ez diren gainerako neurriak (unibertsalak eta gehigarriak) ezarri direnean sartu behar dira lanean.
Inplementazioa	— Rolak zenbat eta partekatuagoak eta trukagarriagoak izan, orduan eta gehiago bultzatuko daiteke inklusioa (Butt, 2016). — Zuzeneko laguntza pertsona kualifikatuena emango du (bere prestakuntza, esperientzia eta ikaslearekiko lotura kontuan hartuta), irakasle ez diren langileak ezartzearen ondorio negatiboak saihestuz (Blatchford <i>et al.</i>, 2009). — Irakasleen eta irakasle ez diren langileen eta egoera zaurgarrian dauden ikasleen arteko elkarrekintzaren ehunekoak bidezkoa izan behar du (Blatchford <i>et al.</i> 2009). — «Belkro-efektua» ezabatu behar da, batez ere laguntzako langileek esku hartzen dutenean (Giangreco eta Broer, 2005), eta autonomia erraztu, laguntzako eragilearen eta ikaslearen arteko gehiegizko gertutasun saihestuz.

Iturria: Egileek egina, Puigdemílvot *et al.*-etik (2002) abiatuta

Laburbilduz, hezkuntza-laguntzaren zer, nor eta nola birpentsatu behar da, hainbat mailatan. Zehaztu behar da irakasleak ez diren langileek hezkuntza-laguntzan parte hartzearen ustezko ondorioak, hala nola elkarrekintzan kalitate txikiagoa izatea, mendekotasuna, berdinekiko elkarrekintza txikiagoa, etiketatzea, hezkuntza- eta etika-koherentziarik eza edo ekitaterik eza, ezin zaizkiela haien jardunbideei, banakako erabakiei edo euren laguntza jasotzen duten ikasleei egotzi, baizik eta testuinguruko oztopoei, batez ere administratiboei eta antolamendukoei (Webster *et al.*, 2011; Jardí *et al.*, 2022). Izan ere, inplikaturako profesionalek trebakuntza, trebetasunak, jarrerak, prestakuntza eta laguntza egokiak dituztenean, ondorio kaltegarri horiek lehengoratu ahal izango dira.

Hala ere, lankidetzaren mota horrek antolaketako eta kudeaketako ahalegin handia eskatzen die zuzendaritza- eta irakasle-taldeei, irakaskuntza partekatutako mota hori aplikatzen duen ikastetxe bateko zuzendari batek argi utzi duen bezala:

«Hemen ahalegin handia egin dugu kanpoko langileekin. Komunitatearen administrazioak ematen ez badizu, boluntarioen eta GKEen laguntzak izan ditugu. Deabruarekin ere sinatu genituen hitzarmenak. Bestalde, PROA+ak asko lagundu digu. [...] Oso baliabide baliotsua da. Era berean, lan mota hori laguntza eta egitura aldetik bultzatzeko eta motibatzeke eskatuko nuke».

**(Lehen Hezkuntzako zuzendaria,
Nuestra Señora De Navahonda HLHI, Madril)**



Familiekin eta boluntarioekin
Iturria: Manuel Altolaguirre HLHI, Malaga

4.3.3 Behaketa bidezko irakaskuntza partekatua



Ikasgelako lana
Albalat BHI, Extremadura

Ikasgela barruko berdinen arteko behaketa koirakaskuntza eredu gisa har daiteke, eta, horri esker, ikasgelan gertatzen dena ezagutu eta ebaluatu daiteke, eta, horrela, ikas-irakaskuntza prozesuak hobetu. Behaketa, beraz, tresna baliagarria da ikasgelaren funtzionamendua ezagutzeko, estrategia didaktikoak hobetzeko eta irakasleen prestakuntza sustatzeko, irakaslana ebaluatuz.

Prestakuntzari dagokionez, ikasgela barruko behaketa informazio praktikorako iturria da, eta, horri esker, irakaslea hainbat arlotan gara daiteke, ikasgai baten ezagutzan, edukien irakaskuntzan, printzipio etikoen garapean eta IKTen erabilera didaktikoan, besteak beste.

Irakaskuntza partekatua behaketa bidez egin ahal izateko zenbait baldintza eman behar dira. Lehenik eta behin, behaketa ezin da puntuala izan; aitzitik, aldi jakin batean eutsi behar zaio. Aldi horretan irakasleek saioa edo saioak aldeztu aurretik planifikatu, denborak mugatu eta ondorengo ebaluazio eta atzerarikadurako berrikuspenak egituratuko dituzte. Aldeztu aurretik eta modu zorrotzean zehaztu behar dute arreta-gunea (edukia, materiala, aurreikusitako irakaskuntza, ikasgelako giroa, gaitasun beharrekiko zailtasuna) eta behaketaren helburua, denbora eta datuak biltzeko modua (behaketarako jarraibidea).



PAREKOEN ARTEKO BEHAKETA BIDEZKO KOIRAKASKUNTZAKO JARDUNBIDEA (Bideoa)

Gidaren bigarren zatian aurkeztutako lanerako materialen artean, baliagarria izan daitekeen irakaskuntza jardunaren adierazleen eredu bat edo ikasgela bat behatzeko jarraibideak daude.



3. Lanerako materiala

Behaketa bidezko irakaskuntza partekaturako bereziki beharrezkoa da konfiantzazko eta lankidetzazko harreman sendoak ezartzea. Pertsona batzuei deseroso egiten zaie behatuta sentitzea edo kritikaren aurrean sentikorragoak dira. Bestalde, behaketen tonua eta edukia zaindu behar dira. Kontua ez da kritikatzeko, lankidetzan aritzea baizik. Horretarako, beharrezkoa da irakasleek zereginak txandakatzea, hau da, elkarrekikotasuna egoitea eta oharren konfidentzialtasuna gordetzea.

Behaketa bidezko koirakaskuntzako baldintzak

Konfiantza giroa sortzea eta atzeraelikadurak iruzkin eraikitzaileak ziurta ditzan zenbait arau ezartzea.

Behaketak era sistematikoan egitea. Unean uneko behaketek ez dute ekarpen handirik egiten.

Irakasleen arteko behaketa ikastetxearen estrategia izan dadin saiatzea, batzuetan behintzat irakasle guztiak behatuak izan daitezen eta behatu dezaten.

Konfidentzialtasun irizpideak adostu behar dira, arreta jarritz atzeraeraginkortasuna behatutako pertsonak bakarrik jaso dezan.

Tartean diren eragileek behaketarako jarraibideak ezagutzen dituztela ziurtatzea.

Behaketa-saioak aldeztu aurretik planifikatzea.

Behaketako lana irakasleen eta ikasleen interesen eta beharren arabera ardaztea.

4.3.4 Arlo edo gai bera irakasten duten irakasleak

Irakaskuntza partekatua irakaskuntzarako metodologia berezia da, eta arlo edo irakasgai bateko edukiek zailtasun handiak dituztenean erabiltzen da. ikasgela barruko irakasleen arteko lankidetzak ikasleen eta irakasleen arteko harremana errazten duen arreta pertsonalizatuagoa ahalbidetzen du, eta horrek eragina du ikaskuntzen hobekuntzan. Aurreko ataletan azaldu dugun bezala, bereziki baliagarria da ikasle batzuek euren erreferentziako ikasgelatik atera gabe ikasteko izan ditzaketen zailtasunei aurre egiteko. Funtsezkoa da irakaslekide bakoitzari dagokion zeregina planifikatzea. Errepikakorrak izateko arriskuarekin, gogoan izan koordinaziorik gabe ezinezkoa izango dela koirakaskuntzaren potentziala irakaskuntza-eta ikaskuntza-prozesuak optimizatzeko ustiatzea.

Bisitatu dugun ikastetxe bateko Lehen Hezkuntzako irakasle batek azaldu duenez, funtsezkoa da ikasgelako zeregin-trukea planifikatzea:



«[...] hori planifikatu egiten da, zeren, gainera, [...] ikasgelan landuko duzunaren arabera [...] bide gehiago ematen baitio koirakaskuntzako eredu bati besteak baino. Kasu batzuetan erabateko txandakatzea egin daiteke, beste batzuetan gehiago da azalpena eta besteak laguntza bisualarekin laguntzen du, eske- ma bat idatziz edo mapa mental bat eginez. Saioaren edukia- ren arabera [banatzen dira] bakoitzaren paperak. Garrantzitsua dena da, edo gu hemendik saiatzen garena, ikasleen ikuspegitik, agian ez saio berean, baina saio batetik bestera, rolak aldatzea. [...] Ikasleek identifikatzen dute rolak trukatu ditzakegula eta ez dagoela bakoitzak egiten duen rol bat, baizik eta denok denetik egiten dugula».

(Ponce de León HLHI, Madril)

Ikaskuntza-komunitate gisa jarduten duten ikastetxeek arlo bera irakasten duten irakasleen irakaskuntza partekatura jotzen dute sarri. Izan ere, elkarriketako elkarreraginetan oinarritutako ikaskuntza sustatzen da, eta, horretarako, hainbat kolektibo inplikatzeko dira irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan, pertsona desberdinekin elkarreragin gehiago izanez gero, ikaskuntza-egoera handiagoak sortuko diren premisarekin. Elkarriketatutako irakasleetako batek azaldu duenez, «Komunitate garenetik, irakasleak ikasgelan sartzen saiatu gara beti, bai PTkoak, EHIkoak, bai errefortzuko irakasleak» (Lehen Hezkuntzako zuzendaria, Miguel de Cervantes HLHI, Andaluzia).

Ilde horretan, Ikaskuntza Komunitateak diren ikastetxeen jardunbideetako bat Talde Interaktiboak dira. Ikasgela talde txiki heterogeneoetan antolatzeko modua dira, ikaskuntza-mailari dagokionez. Bertan, zenbait pertsona helduk hartzen dute parte (Valls eta Kyriakides, 2013). Talde bakoitzak heldu boluntario baten dinamizazioa du ikasleen arteko elkarreraginak eta elkarriketa sustatzeko, zeregin bat hamabost edo hoge minututan zehar ebazteko. Denbora hori igarota, taldeak jarduera, eta, ondorioz, pertsona heldu erreferentea, aldatzen du. Horrela, ordu eta erdiko klasean, adibidez, ikasleek lau jarduera desberdin landu ditzakete lau heldu desberdinekin (Razionero, 2010). Heldu horiek irakasle laguntzailea zein beste irakasle bat izan daitezke, bai eta irakasle ez diren laguntzako langileak ere (laguntzailea, begiralea...), bai eta senide bat edo irakasle formazioan dagoen ikasle bat ere, besteak beste. Irakaskuntza partekatutik aztertzen badugu, horixe baita aztertzen ari garena, ikasgelan antolatzeko modu horrek hezkuntza-ekintza berean koirakaskuntza praktikoa edo elkarlanean oinarritutako koirakaskuntza konbinatzea sustatzen du. Inplementazio-eredu teorikoari dagokionez, urtaroen eredua egokituko litzateke gehien; izan ere, inplikaturako eragilearen arabera, neurri handiagoan edo txikiagoan, baterako plangintza, ebaluazioa eta hausnarketa daude,

4.3.5 Irakaskuntza partekatua hezkuntza-diseinu intersektzionaletan

Koirakaskuntza bereziki eraginkorra izan da irakasgai edo arlo desberdinetako irakasleen parte hartze planifikatua eta kolaboratiboa eskatzen duten diseinu intersektzionaletan, hala nola eremukako irakaskuntzan edo proiektuetan oinarritutako irakaskuntzan. Bi kasuetan, hezkuntzaren onurak indartzen dituen aukera da, beste metodologia batzuetara joz landu daitezkeen arren, eta hala gertatzen da. Diseinu didaktiko intersektzionaletan, bestalde, espazioen antolaketari buruzko hausnarketa planteatzen dute, garapen eraginkorragoa izan dezaten. Ildo horretan, Padre Piquer ikastetxeko ataza anitzeko ikasgelak erreferentziazko eredua dira, bideo honetan ikus daitekeenez.



ATAZA ANITZEKO IKASGELA ETA PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA (Bideoa)


4.3.5.1 Eremukako irakaskuntzaren antolaketa

Gogora ekarri behar da, bere unean azaldu dugun bezala, arlokako irakaskuntza ez dela irakaskuntza-metodologia bat, gutxienez bi irakasleek parte hartzea eskatzen duen jakintzak eta horiei lotutako hezkuntza-edukiak antolatzeko modu transziplinarra baizik. Beraz, logikoa dirudi hezkuntza-sisteman orokortzeak, LOMLOEk xedatzen duen bezala, aldi berean irakaskuntza partekatua hedatzea. Gure ikasleek gaitasunez ikas dezaten nahi izateak, edukiak irakastea eta horien erreprodukzioa ikustea baino gehiago, erregulartasunez lan egitea esan nahi du —irakasleek beti egin duten bezala—, ikaskuntza-egoerak ebatzi beharreko zeregin gisa planteatuz eta jakintzak mobilizatu beharreko baliabide gisa hartuz. Berriro diogu, eskumenen ikuspegiak irakasleen rol eta zeregin jakin batzuk aldatzen ditu, eta ikasleei rol aktiboagoa ematen die (Bolivar, 2023).

Irakaskuntzak eremuka ezartzeak dakarren erronka sakon aztertu dugu. Eremuka irakasteak irakasgaien ezagutzak integratzea dakar, ikasleen gaitasunak garatzeko, errealitatearekin lotuta eta ikasgeletako hormetatik harago dauden edukiekin. Hezkuntzarako potentzial handia du, zalantzarik gabe, baina gainditu beharreko metodologia- eta antolaketa arloko oztopoak ez dira gutxi. Irakaskuntza partekatuak irakaskuntzak arloka eraginkortasunez antolatzeiko aukera ematen du; izan ere, arlo edo ikasgai desberdinetako irakasleen laguntza behar da irakaskuntza emateko, eta, azkenean, irakasle arduradunen profilaren arabera proposamena edukien sekuentziazio batera mugatzeko arriskua saihesten da.



Eremukako koirakaskuntza
Iturria: Bovalar BHI, Castelló



Soziolingüistika eremuko testu-liburu baten azala

4.3.5.2 Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI)

Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzak (POI) lankidetzan oinarrituta lan egiteko aukera ematen du, bai ezagutza eremu espezifiko baten esparruan, bai diziplinarteko moduan. Bi kasuetan, irakaskuntza partekatua POIren hezkuntzarako potentzialtasuna ahalik eta gehien ustiatzeko tresna gisa aurkezten da. POIk pentsamendu kritikoa, arazoak ebazteko gaitasuna, sormena eta autonomia garatzen laguntzen du. Gainera, ulermen sakonagoa eta ikasketekiko jarrera positiboagoak errazten ditu, ikaskideen arteko laguntza harremanak bultzatzen ditu eta komunikatzeko malgutasuna eta ikasteko motibazioa indartzen ditu (Zubaidah *et al.*, 2017; Azizah eta Wijajanti, 2019; Manshur eta Husni, 2020). POI metodologiaren bidez egiten den ikaskuntza beti diziplinarteko proposamenetan garatzen ez bada ere, curriculumeko hainbat arlo edo ikasgai bateratzea errazten du.



Arkeologia proiektua

Iturria: Navahondako Andre Mariaren HLHI, Madril

POI ereduak ikerketaren eta elkarlanaren bidez lantzen diren arazo konplexuetan oinarritutako zereginak planteatzeko aukera ematen du. Ikaskuntza aktibo eta autonomoak errazten dituen metodologia da. Koirakaskuntza sustatzen du, askotariko ezagutzak eta gaitasunen araberako programazioa integratzeko aukera ematen baitu, eta, gainera, lankidetzako eta partaidetzako metodologiak bultzatzen ditu. POIren indarguneak aprobetxatzeko beharrezkoa da elkarrekin planifikatzea, elkarrekin irakastea eta elkarrekin ebaluatzea, baita zuzendaritza-taldeak irakasleak motibatzea ere. Metodologia aktibo guztiek bezala, lan gehigarria eskatzen du, eta ez dira gutxietsi behar irakasleen eta ikasleen arteko hain harreman pedagogiko estuak dakartzan alderdi emozionalak.

POI koirakaskuntzan erreferentziazkoa den Albalat BHI, zuzendaritza-taldeak klaustroarekin lantzen ditu metodologia horren alde onak, sinetsita baitaude, inor behartzerik ez badago ere, abantailak ulertzen direnean,

irakasteko oso modu atsegina dela. Institutu horretan, ikastetxeko sail guztien inplikazioa duen «proiektuen asteak» proiektua ezarri dute urteko egutegiaren barruan, hiruzpalau irakaslek osatutako batzordeek koordinatuta. Bere webgunean irakur daitekeenez, «ikasleak euren ikaskuntzaren protagonista dira»:

«[...] gure printzipioetako bakoitzak, ikastetxeko dokumentuetan zeharka islatzeaz gain, bere astea du. Horietako bakoitzean, hainbat sail didaktikok modu koordinatuan egiten dute lan, eta gure gazteek euren ikaskuntzaren protagonista diren proiektuak ekoizten dituzte». (<https://iesalbalat.educarex.es/>)

POla gehien errazten duten koirakaskuntzako ereduak taldeko eta eremuen araberrako irakaskuntza izango lirateke. Kasu horretan, eremuen antolaketa egokitu egin beharko litzateke, zereginak ez liratekeelako txandakakoak izango eta ibilbide luzeagoa izango luketelako.

POIren abantailetakoz batzuk (Galeana, 2006)

Hainbat ezagutza mota integratzeko aukera ematen du.

Ikasleek erabakiak hartzen ikasten dute, eta lankidetzarako, plangintzarako, komunikaziorako, erabakiak hartzeko eta denbora maneiatzeko trebetasunak eta gaitasunak garatzen dituzte.

Zereginetikiko konpromisoa eta inplikazioa areagotzen ditu, eta elkarlana sustatzen du.

Itxaropen eta ikaskuntza-agertoki berriak sortzen ditu.

Ikasleen gaitasunak ebaluatzeko aukera ematen du.

POla oso errotuta dago hezkuntzako etapa guztietan, baina ez espero zitekeen guztia, prestakuntzari dagokionez alde on ugari dituela kontuan izanda. Irakasgai jakin batera mugatutako proiektuak aurki ditzakegu, maila bereko hainbat ikasgai edo talde, ikastaro eta, are gehiago, ikastetxe osoa inplikatzaren duten zeharkakoak. Albalat BHI, ikasturte hasieratik, POla indartzeko espazio espezifikoak planifikatzen dituzte:



«Gainera, guk ikasturtearen hasieratik hainbat proiektu aste ditugu ikastetxean markatuta, [...] eta horiek gero eta denbora gehiago hartzen dute. Hau da, orain arte, adibidez, berdintasunaren, emozioen eta baterako hezkuntzaren astea genuen, eta azkenean hila bete bihurtu da. Egia delako ia departamentu guztiek gero eta gehiago parte hartu nahi dutela, eta orduan denboran zehar zabaltzen ari zaigu, proiektuan egiten ari garen jarduerak horiek ere banatu behar ditugulako».

(Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasketaburua, Albalat BHI, Extremadura)

Diseinu didaktikoaren fase guztietan elkarlana bultzatuz, irakaskuntza partekatuak POIrekin uztartze ezin hobea eskaintzen du. Are gehiago, proiektuaren garapenak ia modu naturalean ekar dezake proiektua irakaskuntza partekatuaren bidez gauzatzea planteatzea, gurekin hitz egin duen emakume irakasleetako batek azaldu duenez:



«Proiektua hasi nuenean, [ikasketa buruak] proposatu zidan, hainbat sailen artean partekatutako irakaskuntza zen, eta nik ez nuen oso ondo ulertzen nola funtzionatzen zuen. Horrela hartu nuen, proiektu indibidual gisa. [...] Orduan, hor hasi nintzen ulertzen metodologia horrek nola funtzionatzen zuen. Sortzen duzu, prozedura guztiak testuinguruan jartzen dituzu, teknikoak, kasu honetan eraikitzaileak, guk atondoan egiten dugulako benetako fabrikazioa. Eta gero, aparte, ikasleak, emozionalki, proiektuan integratuta sentitzen ziren, proiektuaren jabe sentitzen ziren. Historia, hizkuntza [...]».

**(Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaslea,
Albalat BHI, Extremadura)**

Interesgarria da irakasle horrek faktore emozionala POI koirakaskuntza-
ren bidez ematen dituen ikaskuntzen funtsezko osagaitzat hartzea. POIak
ikasgelaren esparrua haustea ekarri zuen, ikastetxeko espazio guztiak
ikasteko leku bihurtzeko eta ikasleen, irakasleen eta ikastetxeko langileen
askotariko gaitasunak aprobetxatzeko. Bere hitzetan, «ostras, ze poten-
tzial duen honek»:



«Egiaztatu nuen da ikaslearengan emozioa eragitean ikasgelan lor dezakezuna baino askoz gehiago lortzen dela. Gainera, zure ikasleak ez ezik, zu [ere] aberasten zaitu irakasle gisa. Hau da, nire lankideetako ikaskuntza eta, adibidez, muntaketan asko lagundu zigun gure atezainaren aldetik jasotako ikaskuntza, eta agian edukia buruz ikasteko hain egokiak ez diren baina trebetasun tekniko ikaragarriak dituzten eta arazo handiak konpontzeko gaitasuna duten ikasle askoren trebetasunak. Beno, uste dut hor piztu zela benetan nire interesa, eta metodologia aktibo baten benetako aplikazioa ikusi nion. Hori izan zen abiapuntua, eta esan nuen "ostrak, ze potentzial duen honek!"».

(Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaslea, Albalat BHI, Extremadura)



Proiektuen arabera ikaskuntza
Iturria: Bovalar BHI (Castelló)

4.3.6 Irakaskuntza partekatuko esperientziak Haur Hezkuntzan

0-6 urteko haur eskoletako bikote pedagogikoa Espainiako lurralde osoan oso presente dagoen hezkuntza proposamena da, Haur Hezkuntzako lehen zikloan batez ere. Gida hau batez ere hezkuntzako derrigorrezko etapei buruzkoa bada ere, ez genuen aipatu gabe utzi nahi autonomia-erkidego batzuetako ikastetxe askotan aplikatzen den modalitate horren garrantzia, hala nola Nafarroako Foru Komunitateko Haur Eskolen Sarean edo Gasteizko Udalaren Haur Eskola Sarean.

Bi hezitzailek osatutako hezkuntza-bikoteak haur talde beraren tutorretza-lan partekatua egiten du. Haurrek hainbat hezkuntza-espaziotan (txokotan) askatasunez zirkulatuz egituratzen da, haien interes eta beharretatik abiatuta, ikaskuntzak egin ahal izan eta autonomia garatu eta erabakiak hartu ahal ditzaten. Irakasle batek ikasgela nola antolatzen duten azaldu digu:

«Bi urteko ikasgelan gaude, normalean bikoteka denbora guztian. Sartzen garenetik irteten garen arte. Nolanahi ere, zirkulazio librea egiten dugu lan, eta, horregatik, une askotan, koirakaskuntza egiten dugu beste lau irakaslerekin. Horrela partekatu ohi dugu goizeko tarte luze bat. Ondoren, taldetan biltzen gara, tutore bikote bakoitza [bere taldearekin]. Gero denok batera zirkulazio librea egiten dugu berriro».

**(Haur Hezkuntzako irakaslea,
Armentia Ikastola, Euskadi)**

Hezkuntzako beste etapetan bezala, irakaskuntza partekatuak hezitzaileen eta maisu-maistren arteko harremana errazten du haur-hezkuntzan (iritziak, emozioak, ikuspuntuak, itxaropenak... trukatzeari), bai eta horiek haurrekin duten harremana ere (hautatzeko aukera handiagoa, egiteko estiloak). Errealitate beraren gaineko begirada partekatua da. «Behaketa zehatzagoa da, eta jarduketa-proposamen espezifikoak bultzatzeko aukera ematen du, guztien garapen integrala bermatzeko, eta horiek ere ebaluatzen dira» (Aristizabal, 2020, 33-35 or.). Gasteizko Sareko irakasle baten hitzetan, «denak dira onurak»:



«Begira, gure kasuan, denak dira onurak. Bai, egia da batzuetan, gai batzuetan, zaila izan daitekeela akordio batera iristea, baina denak dira onurak. Azkenean, bi begik ikusten ez dutena lauk edo seik ikusten dute. Eta iritzi desberdinak. Haur bati buruz zalantzak badituzu, zure irakaslekideari ez ezik, beste lauei ere galde diezaiekezu, haiek ere haurrarekin daudelako eta behatzen dutelako. Orduan, uste dut pedagogikoki ona dela iritziak partekatzeari, pertsona batek izan arren txostenak egiteko, familiekin biltzeko edo dena delakorako erantzukizunak, iritzi desberdinak izateak ekarpenak egiten dituelako».

**(Haur Hezkuntzako irakaslea,
Armentia Ikastola, Euskadi)**

4.4

KOIRAKASKUNTZA EBALUATZEN

Ebaluazioari dagokionez, adostasuna dago. Irakasle guztiak ados daude esatean ebaluazioa dela «borroka nagusia»; izan ere, alde batetik, irakasle askok diote, koirakaskuntza egiten duten arren, ebaluazioa, irakasgai desberdinetakoa denez, bereizita garatzen dela departamentu bakoitzak ezartzen dituen adierazleekin. Irakaskuntza partekatua barneko laguntzaren bidez egiten bada, irakasgaiaren irakasle nagusiak ebaluatuko du. Bestalde, irakasle gutxi batzuek adierazi dute koebaluazioa egiten dutela, hau da, errubrikak edo ebaluazio-irizpideak adosten eta batera ebaluatzen dituztela.

Ebaluazioa hezkuntzan dagoen eskakizun handienetakoa da, eta, bereziki, irakaskuntza partekatuko jardunbideak ezartzen ditugunean. Ebaluatzeko denborarik eta ebaluazioa planifikatzeko tresnarik ez izateak zaildu egiten du hura irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuaren zati gisa txertatzea. Ageriko zailtasun hori gorabehera, ebaluazioa prozesu horren zati garrantzitsuenetakoa da. Prozesuaren ideian jartzen badugu arreta, laguntzak eta ikaskuntza-jarduerak planifikatzen diren bezala ebaluazioa ere planifikatu beharko litzateke, irakaskuntza-jardueraren zeregin esplizitua baita.

Bestalde, ikaslea ikaskuntzaren erdigunean jartzen badugu, ebaluazioa tresna boteretsua da, ikaskuntza-egoerei hobeto aurre egiteko gaitasunak eta tresnak hobetzeko gakoak ematen baititu (Hussu eta Strle, 2010; Puig-dellívol, 2005), eta, era berean, bere ikaskuntza-prozesuaz jabetzeko aukera emango dio, eta, ondorioz, autoerregulazioa erraztuko du (Cano eta Petreñas, 2019).

Hezkuntza-sistema paradigma inklusibotik kokatzen duen egungo legegintza-testuinguruan garrantzitsua da ebaluazio inklusiboaren kontzepziora ere jotzea. Goodwinek (2012) ikasleen beharrei buruzko informazioa ematen duen eta ikaskuntza errazteko behar dituen laguntzak eta baliabideak doitzeko aukera ematen digun prozesu gisa azpimarratzen du ebaluazioaren ideia. Beste egile batzuek diote beharrezkoa dela ebalua-

zioa jarraitua eta ikasle guztientzat erabilerraza izatea eta eskola-curriculumari lotuta egotea. Hainbat prozedura erabiltzea eta ikaskuntza sustatzea nabarmentzen dute, baita trebetasunak identifikatzea eta garatzea ere. Ebaluazio-tresnak metodo kuantitatiboetatik harago dibertsifikatzeko eskatzen dute. Irakasleen arteko lankidetzaren garrantzia ere azpimarratu dute, bai eta ebaluazio-jarduerei denbora eskaintzeko beharra ere (Santiuste eta Arranz, 2009).

Canok eta Petreñasek (2019) adierazten dute garrantzitsua dela ebaluazio prozesua inplikaturako eragile guztiekin partekatzea, lankidetzan oinarritutako banaturako ebaluazioaren ideiarekin bat etorritz. Ebaluazioa inplikaturako eragile guztiekin partekatzeak ikuspegi desberdinak kontuan hartzea dakar, ikasleak testuinguru eta egoera guztietan dimentsio integraletik ikustea ahalbidetzen du. Lankidetzan oinarritutako ebaluazioak ebaluazio-irizpideak, prozesua eta emaitzak elkarrekin partekatzea eta eraikitzea eskatzen du. Horrela, erabakiak hartzeak prestakuntza izaera partekatua du, eta hori hobeto egokitzen da ikaslearen premietara eta eboluziora.

Lankidetzan oinarritutako banaturako ebaluazioa garrantzitsua da irakaskuntza partekatuaren testuinguruan. Alde batetik, banaturako lankidetzaren ideiak hainbat eragile irakaskuntza, ikaskuntza eta ebaluazio egoeran inplikatzeak aukera ematen digu. Berdinen eta ikaslearen rola garrantzi berezia hartzen dute, eta ez bakarrik irakaskuntza partekatua egiten duten irakasleen rola. Irakaskuntza partekatua aukera paregabea eta aberasgarria da inplikaturako hainbat eragileren ikuspuntuak kontuan hartuta erabakiak adostuta hartzen diren ebaluazio inklusiboko espazio horiek sortzeko. Hainbat eragilek koirakaskuntzako egoeran duten inplikazio hori, aldi berean, jasangarriagoa eta bideragarriagoa izango da, ebaluazioaren pisua ez baita irakasle bakar batena.

Beraz, irakaskuntza partekatuko egoeretan ebaluazio-rol desberdinak sortzeak, ditugun giza baliabide guztiak erabiliz, ebaluazioaren kalitatea hobetzeko aukera emango digu. Banaturako ebaluazioa aukera paregabea da ikasleek euren ebaluazio-iritzia, hau da, euren lana eta beste batzuen epaitzeko gaitasuna, gara dezaten, euren ebaluazio-gaitasunari buruzko ezagutza garatuz (Panadero *et al.*, 2019). Ebaluazio judizio hori

irakasleek edo/eta koirakaskuntzako egoeretan inplikaturako beste profesional batzuek ere garatuko dute. Zaila izan daiteke erantzukizun osoa hartzea; horregatik, koirakaskuntzako egoera batean lankidetzan oinarritutako banatutako ebaluazio batek erabakiak hartzeko erantzukizuna partekatzeko agertoki paregabea eskaintzen digu. Erabakiak hartzea ez da irakasle bakarraren edo irakaskuntza partekatzen duten profesionalen prozesu subjektiboa edo arbitrarioa; aitzitik, irakaskuntza-lankidetzako agertoki horrek, ikasleen begirada ere txertatuz, guztiok inplikatzeko gaitu eta gu guztiok bilakatzen gaitu horren erantzule, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen aurrean kontzienteago bihurtuz.

LANKIDETZAN OINARRITUTAKO BANATUTAKO EBALUAZIOAREN FUNTSEZKO ALDERDIAK IRAKASKUNTZA PARTEKATUAREN TESTUINGURUAN

1. Planifikatzea

Ezinbestekoa da planifikatzea nola ebaluatuko den, zein unetan, zein tresnarekin eta zein pertsonen egingo duten.

Garrantzitsua da ebaluaziorako adierazleak partekatzea eta elkarrekin eraikitzea.

Ebaluazioa irakaskuntza-prozesu partekatuaren zati gisa planifikatu behar da, gehikuntzarik izan gabe.

2. Tresnak partekatzea eta dibertsifikatzea

Garrantzitsua da ebaluazio-tresnak euren tipologian eta forman dibertsifikatzea, ebaluazio inklusiboagoa eta eskuragarriagoa egiteko.

Ebaluazioaren alderdi kuantitatiboagoak eta ikaslearen aurrerapenaren tresna kualitatiboagoak bilduko dituzten tresnak txertatzea.

Tresnak ikasteko proposamena diseinatzearekin batera prestatu beharko lirateke.

Tresnek ebaluazioari dagokionez irakasleek izan ditzaketen desadostasunak murrizten dituzte.

3. Ebaluazio-eragileak dibertsifikatzea

Ebaluazioa ikasgelan parte hartzen duten eragileen artean elkarlanean banatzeak balorazioen bilketa optimizatuko du.

Ikaslearen aurrerapenaren ikuspegi errealagoa eta jarduerak funtzionatu duen moduaren balorazio doituak eskaintzea.

Inplikaturako pertsona guztiak modu adostuan eta kolegiatuan barne hartzen dituzten erabakiak hartzen uztea.

Ikasleen ikaskuntza autoerregulatzen laguntzea.

Irakaslekideei euren jarduna autorregulatzen laguntzea.

Eragile guztiek (irakasleak, beste profesional batzuk, ikasleak) ebaluazioan parte hartzea erraztuko duten tresnak diseinatu behar dira.

4. Ebaluazioari lekua eta denbora ematea

Ebaluazioari lekua eman behar zaio, bai plangintzan, bai ikaskuntza-prozesuan, bai saioaren ondoren.

Ebaluaziorako guneak irakasleen ordutegiaren antolaketatik bertatik planifikatu behar dira.

Hasiera batean, irizpideak planifikatzeko eta eztabaidatzeko ahalegina egingo da, baina epe labur eta ertainean, tresnak sistematizatzeak, ebaluazioan hainbat eragilek parte hartzeak eta ebaluazioa irakaskuntza partekatuko prozesuaren parte gisa sartzak erraztu egingo dituzte inplikaturako eragileen autonomia eta ahalduntzea. Ebaluazio sistematizatua aplikatzen duten irakasle talde gehienek azpimarratu dute beharrezkoa dela ebaluazio prozesuak berrikusten aurrera egitea, baita lan batzorde espezifikoak sortzea ere. Hezkuntzako arlo edo proposamen batzuetatik has daiteke, eta sistematizazio hori pixkanaka zabaltzen joan. Oinarrizko tresnak taldean prestatu ondoren, azkarragoa eta jasangarriagoa da planifikatzea. Hau da, tresna eta adierazle mugatuekin zenbat eta plangintza-ahalegin handiagoa egin, orduan eta arintasun eta autonomia handiagoa ebaluazio partekatuan.

Irakasleek koordinazio- eta ebaluazio-prozedura bateratuak ezartzearen garrantzia baloratu dute, administrazioek era formalean ezarritakoez harago:

«Guk errubrika bat egiten dugu elkarrekin, eta gero harekin ebaluatzen dugu, bakoitzak bere aldetik [...] Gero gauzak komunean jartzen ditugun bilerak ditugu [...] Erregistroko maila ofizialean ebaluatu behar duena ikasgaiaren arduraduna da, paperen kontuarengatik. Baina, jakina, ohar hori ikasgelan parte hartu duten irakasle guztien adostasunetik sortu behar da».

**(Lehen Hezkuntzako irakaslea,
Luis Buñuel HLHI, Madril)**

Deskribatutakoa bezalako kasuetan, irizpide-ebaluazioa banatu egiten da, azkenean bateratzeko. Ebaluatzekeko modu hori edozein etapatan eta edozein hezkuntza-proposamenetan aplika daiteke, baina funtsezkoa da irakaskuntzak diziplinaz gaindikoak eta zeharkakoak direnean; adibidez, proiektukako laneko esperientzia gehienetan garrantzitsua da adierazle argiak dituzten irizpide partekatuak ezartzea. Diziplinarteko ebaluazioari dagokionez, hainbat diziplinatako irakasleen parte-hartzeak ikaslearen balorazio askoz ere konpetentzialagoa eta ez hain subjektiboa eskaintzen lagunduko du, irakasle honek hausnartu duen bezala:



«Nola ezarriko dugu zenbakizko nota bat bi pertsonaren artean egiten dugun jarduera bati buruz, ebaluatzekeko modu desberdina badugu. Izan ere, azkenean, nik zure ulertzeko moduaren bestelakoa daukat. Proiektu baten barruan lan egiten dugun arren, zuk nik baino garrantzi handiagoa eman diezaiokezu arlo bati, baina errubrika bat edo ebaluazio taula bat eraikitzen badugu, jarduera ebaluagarri bat egiten dugu, elkarrekin esertzen gara ikasle bat ebaluatzekeko edo gure irakaskuntza, ikaskuntza edo azalpena ebaluatzekeko. Bakoitzak zati bat, ikuspegi desberdin bat, ematen du, eta, nire ustez, hori oso aberasgarria da».

**(Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaslea,
Albalat BHI, Extremadura)**

Zalantzarik gabe, ebaluazioa behar bezala planifikatzeak ikasgelako irakasleen elkarlanerako begiradaren eta ikasle guztientzako laguntzen potentziala aprobetxatzeko aukera ematen du. Irakasle batek dioenez, «egunerokoan ikasgelan zaudenean, bien arteko ebaluazioa oso erraza da»:

«Egokitzapen esanguratsuak zuk zeuk egiten dituzu. Zuk Hizkuntza eman behar diozu, Matematika eman behar diozu. Zuk hori ebaluatu behar duzu eta nik zurekin ebaluatuko dut. Hor zailtasunak izan ditut. Zer gertatzen da? Egunerokoan ikasgelan zaudenean, bien arteko ebaluazioa oso erraza da».


**(Lehen Hezkuntzako irakaslea,
Miguel de Cervantes HLHI, Andaluzia)**

7. Irudia
Ikasle guztiak ebaluatzeko prozesuak



Iturria: Egileek egina

Azken batean, irakaskuntza partekatuan, irakaslekideak, bai irakasle tutoreak edo irakasgaietakoak, bai laguntzakoak, lankidetzan arduratzen dira irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaz, eta, beraz, baita ikasle guztien ebaluazioaz ere.



BIGARREN ATALA




PRAKTIKATUZ ETA PARTEKATUZ




05

TEORIATIK PRAKTIKARA NOLA ANTOLATU KOIRAKASKUNTZA?



Aurreko kapituluetan irakaskuntza partekatua egiteko beharrezkoak diren baldintzak aztertu ditugu, bai eta irakaskuntza hori arrakastaz gauzatzeko sarritan saihestu behar diren zailtasunak ere. Lehenengo baldintza errealitatearen irizpidea ez galtzea da. Ikastetxearen eta ikasgelaren baldintzak gainditzeko dituzten helburuak planteatzeak, esperientzia bideraezina izateaz gain, frustrazioa eragingo du irakasle-taldean, hori, etorkizuneko proposamenei uko egitea ekartzen ez badu. Horregatik, irakaskuntza partekatuko gure proiektuek kontuan hartu behar dituzte bideragarritasuna zehaztuko duten baina elkarren artean erlazionatuta dauden hainbat motatako faktoreak. Zehazki, zuzendaritza-taldearen aurretiazko jarrera eta lidergoa, ikastetxearen baldintzak, curriculum-eskakizunak eta ikasgelaren antolamendua.

Irakaskuntza partekatua egiteko erabakia irakasle- eta zuzendaritza-taldeei dagokie. Eurak dira hezkuntza arloko erronkak, ikasleen profila eta ikastetxearen baldintzak ezagutzen dituztenak. Jarraian, irakaskuntza partekatua egiten hasteko eta gure ikastetxeen hezkuntza filosofian txertatzeko bide orri bat proposatzen dugu. Hausnarketarako proposamena da, malgua, jarraibide kanoniko edo doktrinariotik oso urrun dagoena.



Gure ibilbide-orriko urrats bakoitzean, gida honetako kapitulu eta epi-grafeen erreferentzia sartzen da taula batean. Bertan, erlazionatutako gai teorikoak eta metodologikoak jorratu dira. Gogora dezagun gidak dakarren ezagutza hausnarketa teorikoaren eta lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan garatzen ari diren irakaskuntza partekatuko jardunbide ego-kien emaitza dela.

Zenbait material lagungarri eskeintzen da. Gure jardunbidea planifikatzeko eta ebaluatzeko baliagarriak izan daiteke. Arreta berezia emango zaio gure irakaskuntza partekatuko proposamenek arrakasta izateko funtsezko baldintzetako bati: irakaslekideen arteko komunikazioa eta harreman profesionala. Materialen artean, irakasleentzako hiru ebaluazio-galdetegi daude, eta beste bat DBHko ikasleek esperientzia ebaluatu dezaten. Lanerako materialak dira, eta, beraz, egokitu, hobetu edo erreplika daitezke.

Gure proposamena amaitzeko, irakaskuntza partekatuko esperientziak sendotzeko gonbidapena egin dugu, lankidetzan oinarritutako gogoetatik abiatuta, irakaskuntza eta ikaskuntzak eta jardunbide profesionala hobetzeko eta hezkuntza eredu inklusiboetarantz aurrera egiteko tresna gisa. Azken erronka, konplexua bezain bizigarria, irakasleen eta ikastetxeen sa-reak antolatzea litzateke, gure jardunbide egokiak partekatzeko eta disei-natzeko.

IRAKASKUNTZA PARTEKATUKO PROIEKTU BATEN FASEAK

IRAKASKUNTZAKO BEHARRAK DETEKTATZEN DITUGU

**GURE INDARGUNEAK ETA AHULEZIAK IDENTIFIKATZEN
DITUGU IRAKASKUNTZA PARTEKATUA EGIN AHAL IZATEKO**


**HARREMAN PROFESIONAL POSITIBOA
ERAIKITZEN DUGU PROFESIONALEN ARTEAN**

KOIRAKASKUNTZAKO SAIOAK PLANIFIKATZEN DITUGU

IRAKASTEN ETA IKASTEN DUGU

EBALUATZEN ETA HAUSNARTZEN DUGU

PARTEKATZEN DUGU



EZAGUTZEN DUGU

- 1. kapitulua
- 2. kapitulua

LEHENENGO ETAPA

IRAKASKUNTZA BEHARRAK DETEKTATZEN DITUGU

Jardunbide inklusiboagoetarantz aurrera egin nahi dugu, erreferentziazko ikasgelan aniztasunarekiko arreta txertatuz edo bultzatuz.

Ikasle guztientzako banakako arreta hobetu nahi dugu.

Gelako giroa eta dinamikak hobetu nahi ditugu.

Curriculumeko edukiak modu GLOBALAGOAN eta ERREALITATEAREKIN KONEKTATUTA antolatu nahi ditugu.

Metodologia aktiboagoak eta elkarlanekoak aplikatu nahi ditugu ikasleen artean.

Eraginkorragoak izan nahi dugu irakaskuntza elebidunean.

Irakasle taldearen potentziala baliatu nahi dugu lankidetzan oinarritutako jardunbide kritikoagoen bidez.



MATERIALAK

1. Irakaskuntza partekaturako irakaskuntza-itxaropenak esploratuz

EZAGUTZEN DUGU

3. kapitulua

BIGARREN ETAPA

**GURE INDARGUNEAK ETA AHULEZIAK IDENTIFIKATZEN DITUGU
IRAKASKUNTZA PARTEKATUA EGIN AHAL IZATEKO**

Ez ditzagun ikastetxe-testuinguru perfektuak bilatu, baina irakaskuntza partekatuak laguntza eta gutxieneko baldintza batzuk eskatzen ditu jasangarria izan dadin.


BERRIKUSI DEZAGUN

ZUZENDARITZA-TALDEEN ESKU DAUDEN FAKTOREAK

- Laguntza emozionala eta pedagogikoa.
- Langileen kudeaketa eta rolen esleipena.
- Ordutegien eta espazioen kudeaketa.
- Irakasleak koirakaskuntzan prestatzeko erraztasuna.
- Irakaskuntza partekatua ikastetxeko dokumentu instituzionaletan islatzea, ikastetxearen bereizgarri gisa.

IKASTETXEAREN ESKU DAUDEN FAKTOREAK

- Lankidetzaren kultura ikastetxean.
- Berdintasuna profesionalen estatusetan.
- Harreman horizontala taldean.
- Komunikazio-kanal formalen eta informalen existentzia.
- Espazio malguak eta irisgarriak.



IKASGELAREN ANTOLAKETAREN ETA CURRICULUMAREN ESKU DAUDEN FAKTOREAK

Taldeak eta ikasleek banaka dituzten gaitasunak eta berezitasunak ezagutzea.

Curriculumaren gaitasunak aztertzea.

Espazioaren banaketa.

Taldearen kohesioa eta ikasleen pertenezia-sentimendua.

Ikasleen artean lankidetzan aritzeko eta elkarri laguntzeko ohitura bultzatzea.

Irakaskuntza aktiboen metodologiak eman beharra; horretarako, funtsezkoa da curriculumaren IDUren printzipioetatik ulertzea.

EZAGUTZEN DUGU

2.4. kapitulua

3.4. kapitulua

HIRUGARREN ETAPA

**HARREMAN PROFESIONAL POSITIBOA ERAIKITZEN DUGU
PROFESIOALEN ARTEAN**

Adiskidetasun handiagoa izateak ez du esan nahi irakaskuntza partekatuak hobeto funtzionatuko duenik.

BERRIKUSI DEZAGUN

IRAKASLEKIDEEN ARTEKO HARREMAN PROFESIONALA

Ezin dugu beti koirakaskuntza nahiko genukeenarekin partekatu, irakaskuntza-esleipenak edo egin beharreko jarduerak erabakitzen duenarekin baizik. Irakaskuntza partekatua irakaslekidekoen arteko profesionaltasunean oinarritzen da, ez adiskidetasunean.

Eraiki dezagun harreman profesional positiboa.

Landu dezagun elkarriketa zintzo eta enpatikoa, beste pertsonarengan konfiantza ahalik eta gehien sustatuz.

Partekatu ditzagun gure itxaropenak modu eraikitzailean, huts egiteko beldurrik gabe eta akordioak lortzen saiatuz.

Kontua ez da gatazkak saihestea, modu asertiboan eta errespetuz kudeatu ahal izatea baizik.

Zaindu eta etengabe berrikusi dezagun gure irakaslekideekiko harremana.

Partekatu, doitu eta adostu ditzagun ikasgelaren itxaropenak eta kudeaketa-estiloa irakaslekideen artean.

**MATERIALAK**

2. Komunikazio-sareta eraginkorra
3. Gatazken ebazpenerako sareta
4. Thomas-Kilman galdetegia. Gatazkei aurre egiteko bost modalitateak.

IRAKASKUNTZA PARTEKATUKO SAIOAK PLANIFIKATZEN DITUGU

Plangintzak ez du ikasle jakin batzuen berariazko gaiekin hasi behar, saioa klase osoarentzat planifikatzean zentratu behar da.

BERRIKUSI DEZAGUN

PLANIFIKATZEN DUGU

Koordinazio bilerak planifikatzen ditugu.

Komunikazio kanalak adosten ditugu (aurrez aurreko bilerak, plataforma digitala, WhatsApp, Drive...).

Ikasle bakoitzaren indarguneak eta ahulguneak partekatzen eta aztertzen ditugu, baita gure itxaropenak eta ikasgelako esperientziari egiten diogun ekarpen pertsonala ere.

Pertsona bakoitzaren rolak definitzen ditugu.

Askotariko materialak eta baliabide didaktikoak egiten ditugu, Ikaskuntza Diseinu Unibertsalaren (IDU) jarraibideak kontuan hartuta.

Taldearen potentzialtasunei eta beharrei buruz ditugun ezagutzak partekatzen ditugu.

Irakaskuntza partekatuaren modalitatea ikaskuntza-helburuaren eta taldearen ezaugarrien arabera erabakitzen dugu.

Ikasgelako arauak elkarrekin adosten ditugu.

Ikaskuntza-prozesuaren eta irakaskuntza-jardunbidearen ebaluazioa gauzatzeko estrategiak ezartzen ditugu.

Familiak prozesuan inplikatzeke modua adosten dugu.

**MATERIALAK**

5. Ikasgela arrunteko irakaskuntza partekatuko saioen plangintza.

EZAGUTZEN DUGU

- 2.1. kapitulua
- 2.2. kapitulua
- 2.3. kapitulua
- 4.2. kapitulua
- 4.3. kapitulua

BOSGARREN ETAPA

IRAKASTEN ETA IKASTEN DUGU

BERRIKUSI DEZAGUN

IRAKASTEN DUGU

Irakaskuntza partekatuko rola eta laneko prozesua ikasgelako dinamiketara egokitzen ditugu.

Irakaskuntza partekatua bultzatzen duten metodologia aktiboak eta parte hartzaileak aplikatzen ditugu.

Ikasle bakoitzarengan eragina duten oztopoei modu egokian erantzuten diegu, parte hartzea eta ikaskuntzarako erabateko erabilerraztasuna bermatzeko.

Ikasgelako dinamikak gauzatzeko prozesuan modu pertsonalizatuan laguntzen dugu.

Sor daitezkeen eskaerei, zailtasunei, ezustekoei edo/eta oztopoei eraginkortasunez erantzuten diegu.

Elkarri laguntzeko kultura sustatzen dugu ikasleen artean.

EBALUATZEN ETA HAUSNARTZEN DUGU**IKASKUNTZAK EBALUATZEN DITUGU**

Ebaluazio kolaboratibo banatua diseinatzen dugu.

Ikasleek ebaluazio prozesuan gehiago parte hartzea errazten dugu (autoebaluazioa, koebaluazioa, atzeraelikadura...).

Ebidentziak biltzeko hainbat tresna eskaintzen ditugu, ebaluazio dibertsifikatuagoa eta globalagoa egiteko.

Laguntza pertsonalizatua eskaintzen dugu, ikasleek euren burua eta kideak eta irakasleak ebaluatzen ikas dezaten.

Begirada ikasle bakoitzaren lorpenetara bideratzen dugu.

IRAKASLANA EBALUATZEN DUGU

Partekatutako saioen ebaluazio erregistroa elkarlanean erabiltzen dugu.

Elkarrekin hausnartzen dugu koirakaskuntza hobetzeko.

Ebaluazio espazioak eta denborak modu partekatuan sortzen ditugu.

Gure garapen pertsonalean eta profesionalean hazten jarraitzeko prestatzen gara.

**MATERIALAK**

6. Ikasgelako behaketa-erregistroa.
7. Irakaskuntza partekatuko esperientziaren ebaluazioa.
8. Ikasleak-irakaslekideak ebaluatzeko galdetegia.

BIDAIAREN AMAIERA?



EZ, HASIERA

Irakaskuntza partekatua gure irakaslanean sartzen dugu.

Irakaskuntza partekatua Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan txertatzen dugu.

Irakaskuntzaren beharrak detektatzen eta ebazten ditugu irakaskuntza partekatuaren bidez.

Ikastetxearen eta ikasgelaren antolamendu- eta metodologia-baldintzak hobetzen ditugu gure irakaslanerako.

Ikastetxean oinarritutako hausnarketarako eta etengabeko prestakuntzarako espazioak irekitzen ditugu.

ZAZPIGARREN ETAPA

PARTEKATZEN DUGU

Esperientziak zabaltzen eta beste ikastetxe batzuekin trukatzeko ditugu.

PROFESIONALEN ETA IKASTETXEEN SAREAK SORTZEN DITUGU.



MATERIALAK

9. Partekatzen.



TAULA DIGITALA

IRAKASKUNTZA PARTEKATUKO SAREAK ERAIKITZEN



LANERAKO MATERIALAK

1

IRAKASKUNTZA PARTEKATURAKO IRAKASKUNTZA-ITXAROPENAK AZTERTZEN



Galdetegi honen helburua irakaskuntza partekatua aztertzea eta horri buruz hausnartzea da, partekatutako saioak planifikatu aurreko urrats gisa, horrela, irakasleek irakaslekidearen alde aurreko ideiak eta itxaropenak ezagutu ditzaten. «Horretarako, galdetegia egin ondoren, gure erantzunak partekatu behar ditugu, eta akordio batera iritsi gaitezke».

Une honetan, hauxe da koirakaskuntza-egoera horri buruz dudak itxaropen nagusia:

Zein da nire jarrera/filosofia desgaitasuna duten ikasleek hezkuntza arrunteko ikasgela batean jaso behar duten irakaskuntzari buruz?

Erantzukizun hauek izan nahi nituzke ikasgela batean, irakaslekide gisa:

Nire irakaslekideak erantzukizun hauek izatea nahi nuke:

Itxaropen hauek ditut ikasgelako diziplinari dagokionez:


Itxaropen hauek ditut ikasgelako lanari dagokionez:

Itxaropen hauek ditut materialei dagokienez:

Itxaropen hauek ditut ditut zereginei dagokienez:

Itxaropen hauek ditut plangintzari dagokionez:

Itxaropen hauek ditut ikasle batzuen doikuntza pertsonalizatuei dagokienez:



Itxaropen hauek ditut zarata-mailari dagokionez:

Itxaropen hauek ditut ikasketa kooperatiboari dagokionez:

Itxaropen hauek ditut ikasleei feedbacka emateari/beraiengandik jasotzeari dagokionez:

Ditudan beste itxaropen garrantzitsu batzuk:

Ezaugarri hauek eskaini ahal dizkiot gure irakaskuntza partekatuko harremanari:

Gai hauei buruz gehiago ikasi nahi nuke:

Iturria: Egileek egina.

2 KOMUNIKAZIO ERAGINKORRAREN SARETA



Zure irakaslekidearen ezagutza funtsezkoa da komunikazio arina lortzeko. Proposamenaren konplexutasunaren arabera kanal bat edo une bat egokiak izan litezke edo ez elkarritzeta ezartzeko. Hurrengo saretan, elkarrekiko komunikazioa eta koordinazioa erraztuko duten elementu guztiak zehaztu ditzakezu, baita proposamen motaren arabera komunikazio eraginkorragoa bermatzeko ibilbiderik onenak ere.

Proposamenaren konplexutasuna	Ideia/proposamen bat bere konplexutasunaren arabera transmititzeko aukerak	Komunikatzeko kanal egokiaren hautaketa	Jakinarazten den unea
Altua (adibidez, funtsezko aldaketak edo elementu berriak sartzea)	• Aldez aurreko ideia-antolaketaekin idatzitako dokumentua • Laguntza bisuala (aurkezpena edo eskemak)	• Aurrez aurre, aldez aurretik espazio bat eta une bat erreserbatuz • Posta instituzionala • Posta pertsonala (adiskidetasuna/konfiantza egonez gero)	• Laneko ordutegian • Laneko ordutegitik kanpo (posta elektronikoko kanal bat hautatu bada bakarrik)
Ertaina (adibidez, aldaketa txikiak, data-akordioak edo irakasteko ordenaren aldaketak, forma edo funtza aldatu gabe)	• Aldez aurreko ideia-antolaketaekin idatzitako dokumentua • Edukiari egokitutako ahozko azalpenak	• Aurrez aurre, aldez aurretik espazio bat eta une bat erreserbatuz • Posta instituzionala • Posta pertsonala • Ustekabeko aurrez aurreko topaketak • Telefono pertsonala (adiskidetasuna/konfiantza egonez gero)	• Laneko ordutegian • Laneko ordutegitik kanpo (posta elektronikoko kanal bat hautatu bada bakarrik)
Baxua (adibidez, errutinaren antolaketa, aldez aurreko akordioak gogoraraztea edo berrestea)	• Ahozko azalpen labur eta zehatzak	• Aurrez aurre, lekua eta unea aldez aurretik erreserbatuta • Posta instituzionala • Posta pertsonala • Ustekabeko topaketak aurrez aurre • Telefono pertsonala (adiskidetasun/konfiantza harremana izanez gero)	• Laneko ordutegian • Laneko ordutegitik kanpo (adiskidetasun/konfiantza harremana izanez gero)

3 GATAZKEN EBAZPENERAKO SARETA



Ez gara beti gure unerik onenean egoten, eta ez dugu modurik egokienean jokatzeko gure laneko elkarrekintzetan. Hurrengo erregistroak egoera gatazkatsu baten aurrean gure pentsamenduak eta emozioak berrikusten lagun diezaguke, ebazpenean lagunduko duten eta gatazka iraunaraziko ez duten alternatibak proposatu ahal izateko.

Zehaztu EGOERA: zer gertatzen da?, non?, norekin?, noiz?	Islatu esaldi batean PENTSAMENDU automatikoa. Zer etorri zitzazun burura une horretan?	EMOZIOA(K) Zer emozio sentitzen dituzu?	JOKABIDEA Nola erreakzionatzen duzu? Zein da zure erantzuna?	PENTSAMENDU ALDAKETA Zein izan liteke pentsamendu eraikitzaile bat?	ELKARREKINTZARAKO ALTERNATIBA Zer alda dezaket koordinazioa hobetzeko?
1. adibidea. Nire lankideak ez dit oraindik erantzun bidalitako mezuari.	Ez dit kasurik egiten, ez du kontuan hartzen esaten diodana.	Haserrea, amorrua.	Pasatzen utziko dut/ez diot jaramonik egingo hitz egiten didanean.	Agian ez du mezuak berrikusteko astirik izan.	Nire mezua irakurtzeko astirik izan duen galdetzeraz hurbilduko naiz eta bere arrazoiak ulertzen saiatu esaten diodana babesten ez badu.
